

ARGIA

ALDAKETA
EUSKAL MUSIKA
ESZENAN

Gazteen ametsak, garaiko formetan

J Martina eta
Merina Grisekin
elkarrizketa

42-47. orrialdeak

**"Biziraun dugu,
eta bizirautea bera
ez da gutxi"**

16 | JON ARANO

**"Eolikoen
konpainia gehienek
kiebra joko dute"**

30 | ANTONIO TURIEL

**Streaming
plataforma baten
beharra agerian**

34 | EUSKARA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #285

HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



MONIQUE WITTIG

LESBIANA ETA FEMINISTA SUBERTSIBOA

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: JOKIN FERNANDEZ

Iritziak

- 21 | IKER IRAOLA
- 22 | SONIA GONZÁLEZ
- 23 | ANDREA BARTOLO
- 23 | EDU ZELAIETA
- 24 | LAURA PENAGOS

Finkoak

- 37 | BIZI BARATZEA
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGİ-KONTRA:
AIDA CASANOVA
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



GREENPEACE

12 | EL NIÑO FENOMENOA

Nicolas Goñik Net Hurbil atalean azaldu du El Niño fenomenoaren zer den eta hori sortzeko baldintzak ematen ari direla. Horrek lituzkeen ondorioak ezagutu nahi?

Elkarrizketak eta erreportajeak

16 | PERTSONAIA | JON ARANO

"Biziraun dugu, eta ez da gutxi"

Miel A. Elustondo

26 | INGURUMENA

**Lurraren defentsa
bizitzaren eta burujabetzaren
borroka da**

Estitxu Eizagirre

30 | INGURUMENA | ANTONIO TURIEL

**"Energia kontsumoa %80
jaitsi beharko dugu hurrengo
hamarkadetan"**

Urko Apaolaza

34 | EUSKARA

**"Euskarazko streaming plataforma
bat behar dugu"**

Olaia L. Garaialde

36 | EUSKARA

**"Ofizialtasuna ezinbestekoa da
euskaldunok Nafarroan jasaten
dugun bazterketa gainditzeko"**

Xabier Letona

42 | KULTURA | J MARTINA ETA MERINA GRIS

**Molde eta formatu berriak
garaiko musika eszenan**

Irati Irazusta

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Gorka Peñagarikano, Irati Irazusta,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Leire Artola,
Leire Rodriguez, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUIKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:



KOMUNIKAZIO GRAFIKOA




software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta argitaratu
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta
baldintza beretan eginez gero.

Lizentzia hau baliagarria da
testuontzat eta, argazkien eta
ilustrazioen kasuan, ARGIAren
sinadura daramatenentzat soilik.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Ongi etorri Europara

Migratzaileen etorrera murrizteko "Stop the boats" kanpainaren barruan, Erresuma Batuko Gobernuak hiru pisuko eta 90 metro luzeko itsasontzi batean sarrarazi nahi ditu. Batezbesteko garaje-plaza bat baino tamaina txikiagoko 222 gelatan 506 pertsona. Gizonezkoak bakarrik, eta, gutxienez, 18 hilabetez. 24 orduz zaintzapean izango dira itsasontzitik atera ez daitezten. Giza eskubideen aldeko taldeek gogor salatu dute gobernuaren asmoa, eta sasi espetxetzat jo dute Ipar Irlandako preso politikoak txikitzeke ingelesek eraiki zituzten "H blokeen" antza duen asmakizuna.



Euskara Nafarroa osoan ofizial izatea aldarrikatu dute

IRATI IRAZUSTA JAUREGI

Ehunka lagun elkartu dira Euskal Herrian Euskaraz-ek joan den asteburuan Iruñean egindako mobilizazioan. Zonifikazioaren legea alde batera utzi, eta Nafarroa osoan euskara ofizial izatea aldarrikatu dute.

Hauteskunde kanpainaren testuinguruan, EHEk alderdi politikoei dei egin die datorrena "ofizialtasunaren legealdia" izateko. "Ez gaude gure hizkuntza eskubideak, beste lau urtez, legez urratuak direla ikusteko eta bizitzeko prest. Ez dugu onartuko, beste behin, legealdiaren hasierako negoziatioetan euskararen ofizialtasuna lehen minutuan erortzen ikustea".

Azaldu dute Nafarroa hirutan zatitu zuen zonifikazioaren legeak eta horren bueltan sortutako marko mentalak

"Ez gaude gure hizkuntza eskubideak, beste lau urtez, legez urratuak direla ikusteko eta bizitzeko prest"

"euskararen minorizazio-prozesuaren ondorioak betikotu" dituela. UPN Nafarroako Gobernutik kendu zutenetik zortzi urte igaro badira ere, EHEk adierazi du euskararen ofizialtasuna ez dutela legez gauzatu Uxue Barkosen eta Maria Chiviteren gobernuek: "Euskararen normalizazio-prozesuan nahiz zonifikazioa gainditzeko bidean ez dute egiturazko jauzi esanguratsurik egin".

EUSKARAREN ALDEKO BORROKA

Gaur egun euskaldun eta euskaldun hartzaileak Nafarroa Garaiko herritarren %26,5 dira, 1986ean %10 besterik ez zirenean. Irakurketan horren meritua azken hamarkadetakoa eta gaur egungo euskararen aldeko borrokari aitortu diote.

Azken hilabeteetako bi gertaera ere azpimarratu nahi izan dituzte. Alde batetik, Euskararen Nafar Kontseiluak ofizialtasunaren aldeko posizioa hartu izana, kontrako botorik gabe. Bestetik, Euskalgintzaren Kontseiluaren adierazpenak denbora gutxian berrehundik gora eragileren babesa jaso izana. ●



IRUNGO ALARDEA

Gizon bat kantineara aterako da lehen aldiz Irungo alardean

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Antxon Jauregik 19 urte ditu eta kantineara izango da Irungo alarde parekidean. Maskulinitate eredu hegemonikoari aurre egin eta hainbat muga mental eta sozial apurtuko ditu Jauregik, genero rol markatua duen kantinearen paperean. "Nire ametsa izan da betidanik, baina ez nuen uste lehen mutila izango nintzenik".

Femeninotasunera gerturatzen den oro gaizki ikusi ohi da gizonengan, eta horren erakusgarri da inoiz ez dela gizonik aurkeztu kantineara izan nahian, ez alarde tradizionalean, ezta parekidean ere. Baina genero estereotipoek gure gorputz eta identitateetan hainbesteko presioa egiten duten gizarte honetan, bada muga horiek apurtzen dituenik. Ate berri bat ireki du Antxon Jauregik: lehen aldiz, gizon bat kantineara rolean aterako da alardean. Badaki jende bati hazkura eragingo diola, halaxe esana du, baina berdin zaiola gaineratu du, errespetatzen badute.

Irungo San Miguel auzoko konpainia aurten sortu da alarde parekidean, eta konpainia horretan aurkeztu du bere burua kantineara izateko Jauregik. Konpainiaren aldetik zabalik izan ditu ateak uneoro, eta garbi utzi dute ez dagoela araurik gizon batek kantineara aurkeztu ezin duela dioenik. Babes handia jaso duela dio Jauregik eta ilusioz espero ditu ekaina bukaeran ospatuko diren Sanmartzialak.

HAURRAK AITZINDARI

Iaz, lehen aldiz bi mutil kantineara atera ziren Donostiako haur danborradan. Irunen, 13 urteko mutilaren kasua kontatu genuen duela lau urte: Irungo ikasleek eskolan egiten duten Alardean kantineara izatea hautatu zuen. ●



EHE

MATERIALISMO HISTERIKOA

Egia



UXUE APAOLAZA LARREA

Batzuei berehala sinesten diet, zerbait kontatzen didate, eta ez zait susmorik pizten. Haserretu naiteke, baina sinesten diet. Sinesteak edo ez sinesteak ez du, askotan, egiarekin zerikusirik, egiantzekotasunarekin baizik. Ipuingile ona izan behar da gezurrak egiaren itxura handiagoa izan dezan egiak berak baino. Eta fikzioan desiragarria dena, errealitatean ez da hala izaten. Ez dugu jendeak gezurrak ondo kontatzen diezagun nahi, nahiago baitugu gezurra antzeman. Hauteskundeak datozkigu, eta politikak errealitateaz hitz egin behar liguke, egiantzaz, eta egiaz; baina zalantza daukat, ipuinetan bezala, zenbait diskurtsok, berez, bi istorio ez ote dizkigun kontatzen. Esaten digutena, eta ezkututzen dutena.

Nik Aitor Estebani sinesten diot sexu askatasunaren legea nahasgarria dela dioenean, puntu batzuk argitzea behar duela. Ez nago ados, baina sinesten dut, ez berak agian, baina ordezkatzeko duen jendarteak ez duela ulertzen. Esaten ari zenak egia asko zuen. Eta, aldiz, ez diot sinesten etxebizitza legeari ezetz esan diotenik eskumenak inbaditzen dituelako. Eta azken hori izan da kanpainan gehien esplotatzen ari direna, sinesgaitzena izan arren. Baina norbaiti ipuin ona iruditu zaio, eta hala izango da, jasotzen duten boto kopurua ikusita.

Hauteskundeak datoz, eta egiaz mozorrotutako erdi-egia eta gezurrak botako dizkigute, eta politika ez da fikzioarako eremua; egia bat ondo kontatzea garrantzitsua den arren, eta horretarako batzuetan ez diren istorioak erabili behar badira ere. Baina ipuingileak istorio bat kontatzen digun bitartean, egia bat ikusarazi nahi digu, kontatzen ez duen hori. Politikari batek istorio bat kontatzen digunean, ez du beti azpiko egia hori hobeto ulertarazi nahi, ezkutatu egin nahi du. Ezkutatu egin nahi du, ez duzula uste duzuna bozkatuko. Adi politikariek kontatzen ez dituzten kontakizunei. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

HERRI KIRATS



Seaska

Ekarpen ekonomikoa eskatu dute Ipar Euskal Herriko Ikastolek: "Ekaitz erauntsiak Herri Urratsen 40. urteurrena ospatzeko geneukan ametsa zapuztu du. Besta bere handitasun osoan ezin ospatze horrek milaka euroko galera ekonomikoa ekarri dio Seaskari".

Independentzia

Usansolo herri izateko legedia aldatzea eskatu dute EAJK, EH Bilduk eta Ahal Duguk Espainiako Kongresuan. Usansolotarrek 30 urte daramatzate herri izateko lanean, eta azken txanpan daude, baina oztopoak izan ditzakete Espainiako Legedian.

Elikagaiak

Elikagaiak alferrik galtzea prebenitzeko legea eztabaidatu dute Espainiako Diputatuen Kongresuan. Besteak beste, jatetxeak behartuta egongo dira bezeroei ematera jaten ez dituzten elikagaiak, eta elikagaien banaketa-enpresek ere ezingo dute jakirik bota.

LURRALDEA ETA ARKITEKTURA

Datu-zentroak



ULA IRURETAGOIENA

Internet lurralde fisiko bat izango baltz, planetako seigarren lurralderik kutsakorrena izango litzateke.

Elektronikako gailuen ekoizpenean erabiltzen diren mineral natural kantitate handiaren, ekoizpen prozesuan sortzen den CO2 isurketaren eta epe laburrean erabilerarik gabeko elektronika material-hondakinen berri bagenuen. Baina ezezagunagoa zaigu datu biltegien azpiegiturek eta datu digitalek sortzen duten ingurumen hondamendia.

Datu digitalen byte bakoitzak aztarna ekologiko bat uzten du. Email bat bidaltzeak CO2 isurketa gramo bat suposatzen du, eta erabilerarik gabeko biltegiaturiko argazkiek isurketa bat dute ere bai. Materia eta fisikotasunik gabeko datu digitalek, metabertsoak, adimen artifizialak, gauzen internetak, laneko eta bizitza sozialeko streaming eta bideo-deiek ingurumenean eragina dute, eta ez omen da txikia. Hodeiaren irudi etereoak iradokitzen duen garbitasunak engainura eramaten gaitu. Eta etorkizunean datu digitalen hazkuntza zeharo handituko dela jakiteak alarma piztu beharko liguke, giza eta mental alorrekin batera, ingurumen inpaktuagatik.

Toledon datuak biltzeko campus erraldoia eraiki nahi dute aurren, Europako bosgarren handiena, facebook, instagram eta Whatsapp aplikazioen datuak gordetzeko batik bat. Eta berriki albisteak izan da, eraikuntza multzo berriak ur-kontsumo ikaragarria behar duela telekomunikazio eta elektronika sareen hoztea lortzeko, non eta lehorten latzak pairatzen ari den zonalde batean. Gobernariak azkar erantzun dute berreskuratze hidrologiko plan bat izango duela eraikinen egarriak biztanlegoaren ur beharretan eraginik izan ez dezan. Baina proiektuari buruz egin diren zehaztapen teknikoak oso lausoak dira oraindik eta ez garen ez atzo jaioak, susmoa esnatzen du. Baliteke munduaren bizimodua digitalizatzea black box erraldoien truke izatea, eta baliabide materialen xahutzearen joerari eustea, inmateralitasunak ez baikaitu libratuko. ●

“Kutxabankek Euskadiko mugetatik kanpo hazi behar du”

ANTON ARRIOLA

Kutxabankeko presidenteak iradoki du Euskal Herriatik kanpo hazteko proiektua duela Kutxabankek, eta horretarako banku pribatueta eta inbertsio bankuetan jarri du begia.

ARGIA.EUS (2023-05-10)



“ETXEBIZITZAREN ARAZOA KONPONDU NAHI BADUGU, HERRI BAKOITZAK EZIN DU BERE ALDETIK SOILIK ARITU”

HEGO EUSKAL HERRIKO ETXEBIZITZA SINDIKATUEN SAREA

2023-05-10

“Txikizio handiak egin badira ere, mendiak zulatu eta ehunka iturri lehortu badira ere, obrak 15 langile hil baditu eta 6 milioi inguruko gastu publikoa egin bada ere, oraindik denboran gaude, eta ahalik eta azkarren AHT gelditu behar dugu”

OARSOALDEKO ETA DONOSTIALDEKO AHT-AREN KONTRAKO MUGIMENDUA

2023-05-10

3

laboraritik batek ez du jaso idorteei aurre egiteko dirulaguntzarik Ipar Euskal Herrian. ELBk salatu du ez dela onargarria Frantziako Estatuak etxalde batzuk laguntzetatik kanpo uztea. Laborariko gutxienez 4.000 euroko laguntza galdegin dute.

7.000


lagunetik gora elkartzen dira astero Mintzapraktika egiteko. Egitasmoa duela 30 urte sortu zuten Donostian, eta urteurrena ospatuko dute maiatzaren 27an.

2024

urtean hondakin organikoak bereiztea derrigorrezkoa izango da Frantziako Estatu osoan. 35 euroko isuna ordaindu beharko du hondakinak gaika sailkatzeko agindua urratzen duenak.

NAZIOARTEA

Leuzemia-tasen hazkundea Iraken, AEBen bonbardaketak hasi ondoren



MONA CHALABIREN INFOGRAFIA THE GUARDIANENTZAT

Minbizia, Mendebaldeko demokraziaren arma

 AXIER LOPEZ

2003ko martxoan Irakeko gerra abiatu zuten Mendebaldeko potentzia nagusiek Saddam Husseinen gobernuak suntsipen handiko armak zituelakoan. Orduan argudio sinesgaitza zena, handik gutxira argi geratu zen AEBetako gobernuak eta bere mariatxi europarrek (Espainiako Estatu tartean) goitik behera asmatutako gezurra zela. 20 urte pasa dira "Askatasuna Irakentzat" operazio militarretik, eta negargarriak dira emaitzak irakiarrentzat: hildako, zauritu eta mutilatu saldoa, azpiegituren suntsiketa masiboa, ekonomia lehertuta, indarkeriak bizirik darrai, gobernagarritasun eza... Baina bi hamarkadaren ostean ere azaleratzen jarraitzen dute Mendebaldeko "demokraziek" Iraken egindako ondorioek: Hiroshimako bonbardaketek baino ondare toxiko okerragoa utzi du inbasioak, Christopher Busby doktore britainiarrak zuzendutako ikerketa baten arabera.

AEBak Irak bonbardatzen hasi eta gutxira, medikuek ohartarazi zuten minbizi-tasa eta jaioberrien "anomaliak" izugarri handitzen hasi zirela. 2010ean, ikertzaileek frogatu zuten hori ez zela anekdotikoa. Fallujan,

leuzemia-tasak %2.200 handitu ziren eta haurren minbiziak %1.260 egin zuen gora. Halaber, ondorioztatu zuten garuneko tumoreak %740 hazi zirela eta haurren heriotza-tasak %820 handiagoak zirela inguruko herrialdeetan baino.

Busbyk azpimarratu duenez, "minbizi-mailak harrigarriak dira", eta "Hiroshiman irradiazio gehien jasan zuten pertsonak jasandako efektuak Falluja osoan baino txikiagoak izan ziren".

Azalpena simplea da: uranioa. The Guardianek argitaratu eman duenez, ikertzaileek uranioa aurkitu zuten emakumeen ilean eta, beraz, ondorioztatu dute AEBek uraniozko armak erabili zituztela Iraken (antzeko frogak aurkitu ziren Gazan, non Israelen uraniozko armak erabili zituen 2006an zibilen aurka). Uranio pobretuak 4 mila milioi urte baino bizitza luzeagoa du batez beste, gutxi gorabehera Lurraren adina. Beraz, Irakeko milaka kilometro lur kutsatu dira betiko.

Suntsipen handiko armak suntsitzera ei zihoaztenek suntsipen handiko armak erabili zituzten demokrazia, askatasuna eta bakearen izenean. ●

Etxekalte

MIKEL BASABE KORTABARRIA

Jaurlaritzak, derrigorrezko ikastaldia bukatzerakoan ikasleek, aukera berdinetan, bi hizkuntza ofizialak benetan erabiltzeko adina menperatuko dituztela ziurtatzera bideratutako neurri guztiak hartuko ditu". Oraingo hezkuntza-legea? Ez. 10/1982 Euskararen legea, duela 41 urtekoa.

Are gehiago: Jaurlaritzak du "ikasleek bi hizkuntza ofizialak benetan menperatzera bideratutako neurriak hartzea ere eta ikasketa-planen egokitzapena". Hori ere, 10/1982 legekoa.

Oraingo Hezkuntza Legean Jaurlaritzak maila jakin bat jarri dio "benetan erabiltzeko" gaitasun horri: B2. Horixe berrikuntza.

Sinisten lanak ematen badu ere, Hezkuntza Legearen proiektuak hauxe jasotzen du:

- "Lege honek posible egin nahi du ikasle guztiek, familia-jatorria edozein dutela ere, ikasketak amaitzean bi hizkuntza ofizialak maila berean ezagutzea". 41 urte pasa eta gero, hau! Ez dakite eskolak ezin duela berak bakarrik? Ebaluazio diagnostikoen emaitzak ez dituzte aztertu? Lege zaharreko asmo berbera da: ez da bete, ez da betekoa.

- Aurrerantzean, hezkuntza-eredu bakarra egongo da, "zeinean bi hizkuntza ofizialak eta atzerriko hizkuntza bat, gutxienez, ikaskuntza-hizkuntzat hartuko baitira". Gaur egun D ereduaren euskaraz ematen diren eduki batzuk gaztelaniaz eta ingelesez emango dira. Beraz, ordu gutxiago euskaraz gure sistemako ikasle gehientzat (2022-23 ikasturtean, 1. LH publikoko ikasleen %97,47 dago D ereduaren, eta pribatuko %62,80). Horientzat guztientzat, euskara-ordu gutxiago. B eredu publikoan ikasleen %2,68 dago, eta pribatuan %34,47. Horientzat, orain baino euskara-ordu gehiagorik ez. Lege berriko 3L ereduak ez die euskara gehiago ekarriko 1. LHko ikasleen %96,39ri.

- Ausart, ikasleek lortuko ei duten maila zehazten da: B2, DBH amaitutakoan. Euskara-ordu gutxiagorekin, askoz euskara gehiago ikasiko dute, orain B1 maila

baino ez zaielako onartzen. Pentsa zenbaterainokoa den miraria: aurten 4. DBH amaituko duen ikasleak B1 maila lortuko du; datorren urtean amaitzen duenak, B2. Hargatik.

KONTROL INDEPENDENTE BARIK

Legearen aurreproiektuan, kanpoko kontrol eza salatzen genuen. Behin betiko testuan ere, "ikasleen ardura beren

Pentsa zenbaterainokoa den legearen miraria: aurten 4. DBH amaituko duen ikasleak B1 maila lortuko du; datorren urtean amaitzen duenak, B2

gain duten irakasle-taldeek ebaluatuko dute gutxieneko helburu horiek betetzen diren". Proiektuan berdin jarraitzen du horrek, baina: "Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak jarraipen-sistema eraginkor bat jarriko du abian, ebaluazioaren emaitzak hobetzeko eta ezarritako helburuak lortzeko". Bada zerbait; ez da nahikoa. Batetik, ez dela-

ko kanpoko kontrola eta, bestetik, hiru gauza sinestu beharko genituzkeelako. Lehena, orain arte egin ez dutena (B ereduko ikasleek B1 maila lortzen zutela konprobatzea) aurrerantzean egingo dutela. Bigarrena, hezkuntza legeetan euskararen aldeko neurriak beteko dituztela. Kasu! Jaurlaritzak ez ditu betetzen 2018ko Lanbide Heziketaren legearen 27.1, 27.2, 27.3 atalak, guztiak ere euskarazko irakaskuntzaren aldeko neurriak. Hirugarrena, sinetsi beharko genuke helburua lortzen ez duten ikastetxeak ingeles gutxiago eta euskara gehiago ematera behartuko dituztela. Ikastetxeen negozioaren eta Vocento taldearen kontra behartu ere.

Edonola ere, zalantza/mesfidantza oro uxatzea oso erraz dute. Nahikoa dute araubide orokorreko hezkuntzarako jasotzea lege honetan bertan araubide bereziko ikasketetarako jasotzen dena: 16. artikulua, 3. puntua: "(...) Hezkuntza Sailak hizkuntzen ezagutza-ziurtagiriak lortzeko ebaluazio- eta homologazio-proben ezaugarriak arautuko ditu". Sinplea, argia, zehatza.

Bestetik, ezinbestean euskaraz behar ditugun eskolaz kanpoko jardueren gaian, foko (lausoa) ikastetxeetan



IREKIA.EUS

jartzen du legeak: "Funts publikoen bitartez finantzaturako ikastetxeetan, euskara izan behar da, jeneralean, ikastetxean bertan garatzen diren jardueretarako adierazpidea". *Jardueretako adierazpidea? Jardueretako hizkuntza, ezta? Eta fokoa ez da funts publikoekin finantzaturako ikastetxeetan jarri behar, baizik eta funts publikoekin finantzaturako kirol, kultur eta aisialdi jarduera guttietan.*

Irakasleoi maila bera eskatuko digute gure hizkuntza propioan eta ingelesean. Euskara ardatz izango ei duen euskal eskolan, ingelesa euskara beste jakin beharko da?

IRAKASLEEN EUSKARA MAILA HOBETU EZ

Eta irakasleen kasuan? Aldaketak daude, bai. Kendu dute euskarazko C1+ mailari buruzko aipamena, jakina! Zertifikatzen ez den maila bat legean jasotzea ere!

Baina egin dutena tristeza bezain argigarria da, lege-proiektua presaka eta korrika itxi izanaren adierazgarri. 70. artikuluko 2. puntua: "Irakasleek euskarako C1 maila eta ingeles-irakasleek ingeleseko C1 maila lortzeko prestakuntza sustatuko da".

Hara! Aurrerantzean irakasleei ez zaie euskarazko C1 maila eskatuko? "Irakasleek euskarako C1 maila (...) lortzeko prestakuntza sustatuko da"? Exijitu, orduan, zer exijituko zaie?

Irakasleoi maila bera eskatuko digute gure hizkuntza propioan eta ingelesean. Euskara ardatz izango ei duen euskal eskolan, ingelesa euskara beste jakin beharko da?

Are gehiago: benetan ezarri gura da legean, euskarako C1 maila baino handiagoa ez dela eskatuko? Legez ezarri gura da maila hori baino altuagoa lortzeko prestakuntzarik ez dela sustatuko?

Gogoratu: EAEko irakasle izateko oposizio osoa gaztelania hutsean egin daiteke, hizkuntza modernoetan izan ezik. Hau da, Matematika euskaraz emateko (eta Fisika, Historia, Natur Zientziak, 1. Hezkuntza...) oposizio osoa gaztelania hutsean egin daiteke, ahozko proba eta idatzizko proba.

Bide batez: aurrerantzean, ikasgaiak gaztelaniaz ere ematen hasten direnean, irakasleak gaztelaniaz berba egingo die ikasleei, eta hizkuntza horretan jasoko ditu erantzunak. Akabo, irakasleak hizkuntza-erreferentzialtasuna.

Etxekalte-legeak miraria egingo du: orain arte DBH amaitzean B1 lortzen zuten ikasleek, eta B2 batxilergo amaitzean. Aurrerantzean, B2 lortuko dute DBHn... eta batxilergoan? Legean aipatu ere ez da egingen. Oraingo logikari jarraituta, B2 onartzen bazaie DBHko ikasleei, batxilergokoei... C1. Irakasleentzat "sustatuko den" maila goren berbera. Ala batxilergokoekin mirari-legeak ez du funtzionatuko? Nekez azal daiteke ikasleek askoz euskara gehiago ikastea DBHn, baina ikasle berberak bate-re euskararik ez ikastea batxilergoan.

Legebiltzarkide euskaltzaleei, beraz, proposamen hauxe:

- Aztertu matrikulazio-datuak eta haien urtez urteko bilakaera.
- Aztertu ebaluazio diagnostikoak eta haien bilakaera.
- Galdetu katalanaren aldeko Valentziako kideei zelako ondorioak izan dituen hango 3L ereduak: katalana nagusi, ingelesa eta gaztelania irakaskuntza-hizkuntza.
- Irakurri Hezkuntza Legea.
- Hausnartu lege horrek zer ondorio izango dituen euskararentzat.
- Bozkatu kontzientzian. ●

TEKNOLOGIA

Kuantifikazio baztertzailea?



DIANA FRANCO

Aurrera egitea hobekuntzarekin lotzen dugu. Hobetu, gauza asko hobetu ditzakegu: gure zorientasuna, osasuna, boterea, ezagutza... Hobekuntza guztiak ezin dira erraz objektibatu, ezta behin objektibatura neurketak lortu, eta noski, neurtu ezin dena ezin da alderatu, alderatu ezin dena nola balioetsi hobekuntza bezala? Beraz, dugun mundua hobetzeari dagokionez, objektibatu daitezkeen aldagaiei begira baino ez gara garatzen ari, beste guztia alde batera utzita, txikituz, baztertuz. Bide horretan bi aldagaik arrakasta handia izan dute, hobekuntza objektibatze aldera: kostu ekonomikoa eta etekin ekonomikoa. Susmoa dut dugun munduak bi aldagai horien inguruan hartu duela forma, beharbada bizi dudan errealitate mugatuagatik.

Kostu ekonomikoa eta etekin ekonomikoa objektibatzeak matematika izan du bidelagun eta kontuak errazteko teknologia ugari sortu dugu historian zehar: zenbakiak, abakoa, diruaren ideia, papera eta kontu liburuak, kontabilitate sistemak, Excel orriak, CRMak, ERPak, adimen artifizialak...

Kostu eta etekin ekonomikoaren kuantifikazioaren dinamika zorrotza da, eta emaitzak argi diote nork eta zerk balio duen "hobetzeko" eta nork eta zerk ez. Dena eredu horretara eraman behar dugu: herrien borrokak, animalien babesa, haurren hezkuntza... Kostu eta etekin ekonomikoaren kuantifikazioan hobekuntzarik ez badago, badirudi ezer ez dela hobetzen.

Kuantifikazioa gauza askotarako baliagarria izan bada ere, garbi izan behar dugu alde ilun bat duela eta dugun munduan bazterkeria sustatzeko tresna izan dela.

Hain da okerra eredu hau, egun dugun mundu kuantifikatuan bazterkeria ere kuantifikatu dugula, eta noski, bazterkeria egoerak txikitu egin nahi ditugu. Baina zer ulertzen dugu bazterkeria egoeran dauden pertsonen bizitzen hobekuntza gisa? Mundu kuantifikatu honen logikara egokitzea? Horrela baino ez dugu irudikatzen bazterkeriaren gutxitzea? Bidean, zer edo zer galtzen ari garela uste dut. ●

OZEANOAK INOIZ BAINO BEROAGO DITUGULA, EGOERA EZEZAGUNETARA ERAMAN GAITZAKE EL NIÑO FENOMENOAK

Ozeano globalaren tenperaturak erregistraturiko markarik handiena jo du joan den hilabetean. Aurreko urteekin alderatuz, ezohiko bilakaera nabari da, Ozeano Barean El Niño fenomenoaren baldintzak jartzen ari diren honetan. Adituen arabera, 2024an muturreko tenperaturak ugaritu daitezke, klima beroketa 1,5 graduko mugara helduz. El Niñoren eta beroketa globalaren eraginak gogorrak izan daitezke hainbat herrialderentzat.

 NICOLAS GOÑI

Urtero, martxoaren bukaeran izan ohi da ozeano globalaren azaleko tenperatura handiena (60° eta -60° latitudeen artean neurtua), hego hemisferioan aurkitzen baitira ur masa handienak –Indiako Ozeanoan eta Ozeano Barearen hegoaldean nagusiki– eta hango udaren amaieran metatu baitute berotasun gehiena bertako urek. Aurten, halere, bi ezohiko elementu ikus ditzakegu: uren beroketak martxoan gelditu beharrean, apirilaren 23a arte jarraitu dute tenperatura altuek; eta orain arte erregistraturiko urterik beroenaren marka (2016koa) nabarmen gaindituta da.

Itsasoari dagokionez, aurtengoa urterik beroena izanen den jakiteko goizegi da, baina momentuz horretara bi-

deratua da, batez ere El Niño deituriko fenomeno berriz agertzen bada.

Ozeano Barearen azaleko tenperatura eta haize erregimenak aldatzen dira modu irregularrean, "El Niño" hegoaldeko oszilazioa deituriko fenomenoan. Bi fase ditu fenomeno horrek. Batean, "La Niña" izendatua, zeinetan ekialdeko haize indartsuek azaleko urak Ozeano Barearen mendebaldera bultzatzen dituzten, Indonesia aldera. Azaleko ur beroak bertan metatu eta hondoratzen diren bitartean, ekialdean –Ekuador eta Peruko kostetan– sako-neko ur hotzak azalera datozte. Egoera horretan itsas azaleko urak batez-bertzekoa baino hotzagoak dira, eta horrek mundu mailako atmosferaren tenperaturan eragina du ere. "El Niño"

deituriko bertze fasean, ekialdeko haizeak ahulagoak dira, azaleko urak gutiago mugitzen dira eta ur beroak ekialdean zabaltzen dira. Bi fenomeno horien frekuentzia irregularra da, ez dira beraz aurreikusteko errazak. Azken hamarkadetan, La Niña episodioak urritu dira eta El Niño ugaritu.

EL NIÑO FENOMENOAK ERAGIN ANDANA UKAN DEZAKE

El Niño hegoaldeko oszilazioak atmosfera osoan eragiten du, baina bere eragin gogorrenak Ozeano Bare eta Indiako Ozeanoaren inguruko lurraldeetan gertatzen dira. Ezagutu dugun azken El Niño gertakari indartsua 2014-2016 urteetan garatu zen, eta herrialde kalte-tuenak Peru eta Ekuador izan ziren,



AMAZONIAN SUTEAK

Klima aldaketaren eraginez, oihan tropikalek CO₂ harrapatzeko duten gaitasuna murriztu da, eta sute arriskua handiagoa da. Horrez gain, Amazonian baldintza lehorragoak ekarri ohi ditu El Niño fenomenoak, sute arriskua emendatuz.

GREENPEACE

40.000 etxe suntsitu zituzten uholdeak tarteko. El Niño gertaeretan uholdeak gerta daitezke Kalifornia edo Uruguai aldean ere, eta eurite handiak Afrikako ekialdean eman daitezke (hori litzateke beharbada eragin positibo bakarra, bertan 2020ko urritik dirauen lehor-tea arintzeko, alegia). Bertze ondorio potentzialak ez dira onuragarriak: Asia hego-ekialdean –Indonesian bereziki– lehor-tea; 2022an ezohiko bero uhinak jotako Indian berriro lehor-tea 2024ko udan; gosez jotako Madagaskarren eta Lesothon ere lehor-tea eta beroa; Sahel eskualdean eta Australian lehor-tea ere bai; eta Brasilen bero uhinak hegoaldean eta lehor-tea iparrean. Australia,

**Beroketa globalaren
1.5° muga maila
datorren El Niño
indartsuan ikus
dezakegu, eta hori
datozen bortz urtetan
ikusteko %50eko
probabilitatearekin**

Brasil eta India zereal esportatzaileak direla eta, gaurko testuinguruan ondorio larriagoak ekar ditzake egoera horrek.

KLIMAREN BEROKETA DELA ETA, EGOERA EZEZAGUNETARANTZ


Berotegi efektuaren ondorioz metatzen zaigun beroketaren gehiena –%90 inguru– ozeanoak harrapatzen du, CO₂ isurketen %25 harrapatzen duen bezala. Azken urteotan La Niña nagusi zen, eta horren ondorioz berotasun horren zati handi bat Ozeano Barearen mendebaldeko ur sakonetan gordetik zegoen. Hala ere, klimaren beroketa tarteko, berotasun markak

ITSAS AZALEKO TENPERATURAREN ANOMALIA

Erreferentziazko urteak 1971-2000. 2023ko maiatzaren 7a.

KLIMA ALDAKETAREN INSTITUTUA

Maineko Unibertsitatea

**2023KO MAIATZA HASIERAKO ITSAS AZALEKO TENPERATUREN ANOMALIAK**

Ekuador eta Peruko kostan ikus daiteke El Niño hastearen egoera. Horrez gain, Ozeano Barearen iparrean eta Atlantiko ekialde osoan dauden bero uhinak nabari dira ere.

gainditu dira planeta osoan 2021ean eta 2022an zehar, La Niña ez zelako nahikoa atmosferaren beroketa arintzeko. Orain, El Niño baldintzak agertzen ari direlarik, muturreko tenperatura gehiago ere ikus dezakegu.

Columbia unibertsitateko James Hansen klimatologoaren arabera, 2024 izanen da ordurarteko urterik beroena, eta El Niño arrunta edo ahula izanik ere, tenperatura markak gaindituko dira. Erresuma Batuko Met Office erakundeko epe luzeko aurreikuspen zerbitzu arduraduna den Adam Scaifen arabera, litekeena da beroketa globalaren 1,5 graduko muga datorren El Niño indartsuan ikustea, eta hori datozen bortz urtetan ikusteko %50eko probabilitatearekin.

Oraindik ezin da jakin heldu zaigun El Niño hori zein mailakoa izanen den,

**Berotegi efektuaren
ondorioz metaturiko
beroketaren %90 inguru
eta CO2 isurketaren
%25 ozeanoak
harrapatzen ditu**

baina 1,5 gradu da hain zuzen 2100erako gainditu behar ez genukeen beroketa muga, hainbat hondamendiren saihesteko (hala nola, koral arrezife gehienek desagertzea, maila handia-

goko urakanen sortzea, edota Bangladesh eta Maldibak bezalako lurraldeen itsasperatzea). Mende bukaerako finkatu zen mugara mende laurdena betetzean iristea seinale txarra litzateke. Pennsylvania unibertsitateko Michael Mann klimatologoak dio El Niño eta La Niña fenomenoek lur azalean duten eragin laburrari ez geniokela arreta gehiegi jarri behar, gehiago kezkatu beharko gintuzkelako ozeanoaren beroketa jarraituak.

Klima larrialdiaz hobe ohartzeko baliagarriak izan lirateke El Niño baten ezohiko ondorioak? Europaren hegomenendebaldean 2022ko udak etorkizuneko klimaren ukitua izan zuen: tenperatura markak gaindituta Aturritik Ebroraino, suteak, ur eskasiak, neguan zehar iraun duen lehortea, lurpeko ur geruzak ezohiko mailatan utziz eta la-



LEHORTURIKO ERREKA

Indian izandako lehortea handi guziak El Niño gertakizun bati lotuak dira. 2024an lehortea berriz pairatzea gogorra litzateke, jakinik 2022ko bero uhinaren kalteak oraindik presente dituztela. Iturria: Wikimedia

borantza ekoizpena mehatxatuz. Panorama horrek arazoaren kontzientzia zorroztu du pertsona askorengan, dudarik gabe. Baina hori aski ote da? Funtsean, hori ote da arazoa?

Jean-Baptiste Fressoz energia eta ingurunearen historialariak oroitarazten digu "azken urte hori ingurunearen arazoaz jabetu garen urtea izan da" bezalako esaldiak historian zehar hainbat aldiz erranak izan direla eta ideia hori gehiegitan aldarrikatu dela benetan baliagarria izateko. Bere us-

2022an ezohiko bero uhinak jotako Indian berriro lehortea ager daiteke 2024ko udan, baita Sahel eskualdean, Afrika hegoaldean, Indonesian eta Australian

tez, ingurunearen eta klimaren krisia ez dira ematen kontzientzia eskasarengatik, baizik eta eraldatu behar den eredu ekonomikoarengatik. *COP27-ak klima kudeatzeko eredu falta eta legegida ekonomikoaren indarra agerian utzi ditu* erreportajearen bidez ARGIAk azaldu bezala, tokiko ekimenak horretarako funtsezkoak dira, beroketa efektuko gasen isurketak murrizteaz gain, klima aldaketari aurre egiteko tokian tokiko baldintzak eta erresilientzia sortzen dituztelako. ●





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

Jon Arano

POETA AZKENERAINO

“

BIZIRAUN DUGU, ETA BIZIRAUTEA BERA EZ DA GUTXI

”

Jon Arano bada nor gure literaturan. Nekaezina zen garai batean, poemak idazten, Eustakio Mendizabal *Txikia*-renak eta besterenak editatzen, *Ostiela!* sonatua eta gainerako aldizkariak argitaratzen, prentsan eta irratan kolaboratzen, eta beti irakurtzen. Haatik, urteak eman ditu plaza nagusitik eta foku handietatik kanpo. Oraindik orain, berriz, ipuina argitaratu du booktegi.eus-en, eta joan gatzazkio.

 MIEL. A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Aspaldi zure lanen berri ez genuen. Errusiar erruletara jolastu nahi? ipuin luzea irakurri dizugu sarean...

laz egonalditxo bat egin nuen Usurbilgo sendategian –beste batzuek *sedantegia* esaten diote–, denbora ere banuen, eta narrazio horixe etorri zitzaidan burura. Sendategian “aurkitutako” testu baten moldaketa da, azken finean, labezomorro habia batean testua aurkitu duen pertsona ezezagunaren ohar batzuk erantsita. Gaztetako bizikizun batzuetan oinarritutako narrazioa ere bada, ipuin luze bat. Jakina, testua sendategian aurkitu nuela eta zera hori guztia literatur lizentzia da, klasikoa, oso erabilia idazlearen biografia

mozorrotzeko, eta fikzioa egiteko. Hala-koetan, inork jakitekotan, idazleak beste inork ez du jakiten zer duen benetan berea, eta zer duen asmatutakoa. Ideia ego-si, idatzi, orraztu, zenbait lagunek egindako ekarpenak baliatu, eta argitaratu dut istorioa. Gustura nago.

1936ko Espainiko Gerra Zibila, Bilboren Erortzea, Paco Echevarria ofiziala Frantziako Atzerritar Legioan sartzea eta Aljeriara destinatzea. Hango berriemaile izango dugu, berriz, Arthur C. K. legionarioa...

Eta legionario horrexek kontatzen du dena. Aljeriako gerla da eszenatokia,

edo eszenatokia baino gehiago, baina protagonisten bizikizunek agintzen dute narrazioan. Echevarria, esaterako, gudarrietakoa da. Espainiako Gerra Zibila galdu dute, baina bera ez da errenditu. Frantziako Atzerritar Legioan sartu, eta Indotxinan ere errenditzea egokitu zaio. Aljeriako gerran dabilela, berriz, han ere gerra galtzera doala jabetuko da, baina orduan ere ez du errenditu nahi, eta errenditu orde, errusiar erruletara jolas egingo du: bizitza jokatu du. Ez da ari diruagatik, ezta denborapasa ere, bere buruaren kontra ari da bizia jokatzen. Zenbait traizio handiren aurkako kontuak kitatzeko asmoa du...



Jon Mikel Arano

Aramendi

ITSASONDO, 1961



Kazetari, poeta... Hamaika hedabidetan barreiatuak dira bere lanak: *Zeruko Argia*, ARGIA, *Egin*, *El Diario Vasco*, *Gara*, *Egunkaria*, *Berria*... *Komatxo* artean literatura saioa egin zuen Herri Irratian, eta *Kantillape* eta *Goierritarra* sortzen parte hartu zuen. Poesiarekin batera, *Ostiela!* aldizkariak eman zion izenik handiena Jon Aranori, eta bere eskutik etorri zen euskarazko lehen aldizkari pornografikoa ere: *Pornolore*, *larrugintza eskuliburu*. Poema liburuak ditu *Bileterik gabe*, *Malezia sorta*, eta *Zeruak eta ifrentzuak*, eta berak editatua da *Hitz etena*. Eustakio Mendizabal Txikiaren *Olerkiak* liburuak.

Paperean irakurri izan dizkizugu orain arteko lan guztiz gehienak. Narrazio hau, aldiz, *Booktegi* webgunean ezarri duzu, paper euskarrikorik gabe, alegia.

Sarean argitaratu dut, bai, eta harri-garrizko harrera izan du. *Booktegi*-k bere sarea erabili du, eta, bestalde, neroni ere narrazio hau lagunen artean zabaltzen saiatu naiz, bizi garela esateko-edo, Whatsappez eta e-postaz, baina zenbakiak ez datoz hortik, ahoz aho ere ibiliko zen kontua, ze *Errusiar erruletara jolastu nahi* martxoaren hasieran argitaratu, eta bi hilabetera 1.200 irakurketa eta deskarga baino gehiago izan ditu. Eta egin ditudan elkarrizketen ostean, irakurle gehiago izango dituela uste dut. Arrakasta, ezta? Eta ez arrastaka, askotan halaxe ibili gara-eta, zer irakurlego dugun ez dakigula. Paperean argitaratzeari dagokionez, hainbat lan ditut oraindik argitaratu zain: poesia, ipuinak, elkarrizketa-liburua, saiakera, nobela... Denborak esango du zer datorren, eta nola.

Itzulpenik ez duzu aipatu, baina Joseba Sarrionandiari Habanako gaukarietako azkenean irakurririk dakigu Che Guevararen kapilau izandako Javier Arzuagaren liburuak ere ekarria duzula euskarara: *Gauerdian minean*.

Badira bost urte Arzuagaren lan hori euskaratzeko eskatu zidala ezagun batek. Besteak beste, Joseba Sarrionandiak akuilatuta hasi nintzen *Gauerdian minean* itzultzen. Badakizu, [ARGIA, 2010, azaroak 7] Oñatikoa zen Javier Arzuaga, fraide frantziskotarra Kuban, eta Habanan zegoen hango iraultzaren garaian, fusilatuei hormara laguntzen eman zituen iraultza garaiko lehen hilabeteak [ARGIA, 2010, azaroak 7]. Handik urteetara, testigantza liburu latza idatzi zuen, *A la medianoche* (Gauerdian) [Semillas en el Tiempo, 2016], orain dela bost urte itzuli nuen. Aurtun argitaratuko dutela espero dut. Lan nekeza izan da, bertsio irakurteraz egin nahi izan dut, eta hori ere zama gertatu zait. Bestalde, liburu handia da, ez da lodia, baina bai intentsua, latza, eta ederra.

Zure izena, eta izanaren puska bat, *Ostiela!* aldizkariari loturik dago. Hantxe egin zenituen lehen urratsak.



1996an hasi ginen *Ostiela!* egiten, baina lehenago hasi ginen lanean. 1989an *Goierritarra* sortu genuen, alaiak eta ausartak, gazteak edo berdeak ginen garaian. *Ostiela!* gero etorri zen, eta ordurako ia *berrogeitamargatuak* ginen, grazia galtzen hasita geunden. Orain 60 urte ere beteak ditugu, Iñaki Segurola lankide ohia ere hil zaigu, eta irribarre gutxiago egiten dugu, gure adineko jende gehienak bezala...

Ibilaldi luzea egin duzu bateko eta besteko hedabideetan: *Zeruko Argia*-n...

Hantxe publikatu zizkidaten lehen poemak, ezizenez sinatu nituen...

Bego hori ere. Bateko eta besteko hedabideetan jardun duzula esaten ari nintzen, eta zerrenda ez da txikia: ARGIA, *Goierritarra*, *Egin*-eko *A ze astelehena* gehigarria, *Susa* literatur aldizkaria, *El Diario Vasco*-ren *Zabalik* gehigarria, *Komatxo* artean irratsaioa... Zeure sormen lanez gainera.



Ibilaldi luzea egin dut, malkartsua, pasadizoz josia. Hainbat istorioren intra-historia egingo bagenu!... Ederki pasatu genuen, diru gutxiarekin alai, borrokan eta alternatibo, baina handik urteetara, ez zait errentagarri suertatu. Garbi esango dizut: *Ostiela!* eta gero, uste nuen idazle profesionalaren bidea egiten hasiko nintzela, eta egiteko moduan izango nintzela. Enkarguak jaso, eta batzuetan ezin betetzeko modukoak ziren; beste batzuetan, gaizki pagatutakoak. Lan egin nahi, itzulpenak egiten dituen enpresa batera joan, eta izena autonomoetan eman behar nuela.

Hala esaten zuten toki askotan...

Badakizu, hortaz. Eta nik esaten nien: "Autonomo egin? Baina nola egingo naiz autonomo, kuota pagatzeko dirua ez bazait ailegatzen?". Beharbada oker egin nuen nire izena autonomoetan ez

emanda; beharbada, ez. Hura autonomo faltsua izatea zen, hori zer zen inork ez zekien garaian, edo inork horretaz ezer esaten ez zuenean. Zortea ere izan nuen zenbaitetan enkarguzko lan ongi ordainduak jaso nituelako. Halaxe egin genituen ia hogeitaz urte eta, honezkero, zer egingo diogu, bada?



**Ez naiz lanean
gelditu, baina inor
gutxi garelakoan egongo
dira hainbat: debaldeko
lanetarako besterik ez
zaigu deitzen"**

**Enkarguzko lanak,
batzuetan ongi
ordainduak, beste
batzuetan ez.**

Ahal zena egin dut! Gustuko lan batzuk egin ditut enkarguz, eta han eta hemen kazetari ere ibili naiz, eta kazetaritaz iritzia ere eman dut, baina hori ere ez da, agidanez, egin beharrekoa.

Ez dut uste kazetaria bere lanbideetik luzaro bizi daitekeenik, duin eta oparo, Nire kasuan, arrastaka ibili naiz hainbat hamarkadatan, batean idazle, bestean idazlari, beti idazten, baina biziraun besterik ez dut egin, bizipoz



POESIA

"Poesiak ez gaitu abandonatu, guk poesiagintza pixka bat bai. Hala ere, aspaldi metatutako milaka paper biltzen, osatzen eta txukuntzen ari naiz, argitaratzeko, ahal dela. Bestela, gure bizitza ez da batere interesgarria".

ONA

"Literatur genero guztietatik ikastea da hoberena. Kuestioa da ona izatea, horixe da garrantzitsuena. Izan litezke filmak, komikiak, edozein arte eder... bata edo bestea, norberaren eta momentuko aldar-tearen arabera. Ni, behintzat, zalea naiz, eta entretenigarriek zerbait esaten badute, orduan eta hobeto".

TXIKIA

"Aste Santuan bete ziren 50 urte Eustakio Mendizabal Txikia Algortan hil zutenetik. 1992an bere lanaren gaineko liburua atera genuen, *Hitz etena*. Hura baino lehen, hala ere, 1987an, Txikia-ri poema luze bat idatzi nion, baina negargarri editatu zidaten, eta hori ere zuzentzen, orrazten eta pres-tatzen aritu naiz berrikitan. Nik uste ikus-entzunezko bikain bat egiteko gidoia ere izan litekeela poema luze hori".

Azken hitza

LANDU

"Gauzak landu egin behar dira. Ahozapi batean idazteak ez du balio. Joxean Artzek bai, egin zuen, eta Hegoak ebaki banizkio... atera zitzaion, baina hori oso gutxitan gertatzen da. Hala iristen da inspirazioa, ipurdia- rekin idatziz, eserita idatziz, eta landu, eta halako batean utzi, ze noizbait amaitutzat eman behar da idatzitakoa, eta bere horretan utzi".

handirik gabe. Gaztetan oso dibertigarria izan zen, ARGIA, *Susa*-n, eta han eta hemen kazetari izaten ikasi nuen garaian. Hasieran bai, dibertitua zen. Gero etorri dira tragikomeriak. XX. mendeko gizona izango naiz, zerua goran, behean lurra, ez naiz damu, ez kontent.

Ez damu, ez kontent...

Ez. Hainbat lorpen ditugu. Eginari eutsiko diogu! [Anjel] Sukia monsinoreari elkarriketa egitea lortu nuen, haren familiaren bidez, eta J.J. Petrikorenarekin batera publikatu genuen ARGIA [2007, 1303 zenbakia.]. Sukiaren 6.000 orrialdeko lana ere ibili nuen elkarriketa egin ahal izateko: *Obras y escritos pastorales* (Obra eta izkribu pastoralak). Jakina, ez nuen dena irakurri, baina bai ondo aztertu, eta gogoan daukat Galizian egindako egonaldiaren aitzakian Rosalia de Castrori erreferentzia egiten ziola, edo Primo Leviren Hau gizon bat bada lana ere aipatzen zuela. Alegia, oso buruargia zela Sukia. Euskaraz ere idatzi zuen.

Zer idatzi zuen euskaraz Anjel Sukiak?

Poesia! Ohorezko aipamena jaso zuen 1936ko Olerti Egunean, Lekeition, Euzko apaizgaiarena lanarekin. *Goierritarra*-

-n ere zerbait idatziko nuen Sukiaz. Eta, gero, hil zenean, egunkarirako ere idatzi, eta igandeko gehigarrian publikatu zidaten idatzitakoa –gaiari azala ere eman zioten–, eta denera ez nuen jaso uste nueva, hura idazten hamabost egun baino gehiago eman eta gero. Eta, orduan, bestelako lan batzuk egiten hasi behar izan nuen, eta ahal den bezala ibili naiz urte hauetan. Beka bat ere jaso nuen...

Joseba Jaka literatura bekaz ari zara: *Zeruak eta ifrentzuak* poema liburua argitaratu zenuen 2007an.

Bai, hori ere bai, baina bekarena esan dudanean ni Itsasondoko Udalaren bekaz ari nintzen, hango meategien, edo arbeltegien, eta jaioterri osoaren historia biltzeko eta idazteko bekaz. Urtebeteko beka zen, baina urte eta erdi ere aritu nintzen. Hala ere, 20 urte lehena-go hasitako lana nuen, eta geroztik ere segitu nuena. Ehun lagun baino gehiago elkarriketatu nituen, baina, azkenean, hantxe gelditu zen nik egindakoa.

Non gelditu zen? Zer esan nahi duzu?

Ondareaz arduratzen den enpresa bati eman ziotela lana, eta osatu zutela zerbait. Hantxe aipatzen dute nire izena, baina besterik ez. Ni, joan den hamabost urte honetan herri ondarea arpilatu dutelakoan nago. Nik egindakoa lana, egindako elkarriketa mordoa eta gainerakoa, ez dute argitaratu. Lana ez dago zeharo bukatuta, argazki batzuk eta falta zaizkio, baina ez zait iruditzen Itsasondoko Udalak nire lan hura bukatzeko borondaterik duenik. Esker onik ez! Bitartean, hortxe daude hainbat kilo paper, milaka orri, hautsa biltzen alfer-alferrik. Ez naiz lanean gelditu, baina inor gutxi garelakoan egongo dira hainbat: debaldeko lanetarako besterik ez zaigu deitzen.

Zeuk berreskuratu zenituen, edo eman zenituen ezagutzera, *Lotsati*-ren poemak.

Gurutx Sarasola, *Lotsati*! [1915-1936] Eta banuen esatekorik, baina hitza hartzea galarazi ziguten, eta gero neronek ez nuen ekarpenik nahi izan, nahiz eta gure amaren eta zenbait herritarren lekukotzak nituen. Esker onik ez orduan ere. Bitartean, Iñaki Bodas Larrayozen poemak editatu nituen, Goierriko Kasta

sortu genuen, eta, bidean, hainbat gauza argitaratu ditugu, errezitaldiak egin ere bai, zenbait musikarik nire poemak kantatu dituzte... Gauza asko dira, eta ez dauzkat denak gogoan, edo luze joko luke. Eta poliki-poliki, segitzeko gogoia joan zaigu, krisi ekonomikoa ere etorri zen noizbait, zahartu ere zahartu gara, hurrena pandemia etorri zen, eta ajeak, eta zer esango dizut, bada, biziraun dugu, behinik behin, eta bizirautea bera ez da gutxi.

‘Ostiela!’ eta gero, uste nuen idazle profesionalaren bidea egiten hasiko nintzela, eta egiteko moduan izango nintzela”

“Bestelako lanak” egin behar izan dituzula esan diguzu lehenago. Zertaz ari zinen?

Lan ez intelektualak: kale-garbitzaile, barrera-zain, igeltsero, pintore... Hamasei-hamazazpi urterekin hasi nintzen bizi-modua ateratzen, aita zena hil zitzaigunean. Ez zorrik, ez zorrikerik dugu, bestela urkatuko gintuzten hemen, indarrez... Lehenengo lana, gaztandegi batean egin nuen, eta harrezkero ez naiz lanean gelditu, eta lanean ari naiz oraindik, baina DBE (Diru sarrerak Bermatzeko Errenta) jasotzen, eta hori ere zama handia da, azkenekoa da DBE jasotzea. Bestalde, ezgaitasun bat ere badut, ez da fisikoa, ez mentala, ez da psikikoa, baina emozionala bai. Fisikoki ere ez ditut 16 urte, 61 baizik, hezurak zelanbait, eta ai nire juanetea! Eta, ondorioz, gorabeherak izaten ditut. Baina ez naiz bipolarra, ez *eskizo* ere, badaezpada esanda.

Hala ere, Usurbilgo sendategian izan zinen iaz, eta hantxe aurkitu zenuen zuregana ekarri gaituen ipuina, *Errusiar erruleta*...

Hantxe izan nintzen bai, Usurbilen, lehortegian, edanak zer dakarren bada-kigu-eta, unilateralitatea, alegia. Baina esan dut, testua han aurkitu nuela, lizentzia poetikoa da. Berriz esan behar al dizut?! Edgar Allan Poek Arthur Gordon Pymen istorioa botila batean aurkitu zuen bezala, aurkitu nuen nik *Errusiar erruleta*... Usurbilen. Lizentzia, edo, beharbada, benetan aurkitu nuen testua, eta moldatu, eta osatu nuen ipuina? Eta inork ba al daki, bada!? Eta ipuin hori bezala, hainbat artikulua, ipuin, eta bestelako dauzkat, bukatzeaz beti, edo amaituak, baina hortxe... Ez ahal dira, behintzat, azkenean denak zabortegira joango! ●





Iritziak

M-28ari begirako oharra



IKER IRAOLA ARRETXE
EHU-KO SOZIOLOGIAKO
IRAKASLEA

Maiatzaren 28an udal eta foru hauteskundeak izango dira Hego Euskal Herrian, eta kanpainan murgilduta dabilta alderdi politikoak, aspalditik. Hauteskunde ziklo berri bati ekingo zaio, gainera, horien ostean Espainiako eta Europako parlamentuetako hauteskunde txanda etorriko baita. Data ofizialez haratago, kanpaina elektoral nahiko luzean murgilduta ibiliko gara Euskal Herriko zati honetako herritarrok. M28ari begira ondoko azpimarrak egingo nituzke:

Abstentzioa. Hauteskunde gauetan emaitzak begiratzerakoan ahazten dugun arren, parte hartzeari buruzko datuak garrantzitsuak izango dira. Izan ere, EAEn kasuan, azken bozketetan, Gasteizko Legebiltzarrerako 2020ko hauteskundeetan, parte hartzea inoizko baxuena izan zen. %50ak soilik eman zuen botoa, parte hartze txiki hori ulertzeko bi aldagai kontuan hartu behar ditugun arren: hauteskundeak uztailean egin ziren eta, batez ere, pandemiaren testuinguruan eta murrizketekin gertatu ziren. Beste kontu bat: EAEko hauteskunde autonomikoetan parte hartzeak aspaldian behera egiten duen bitartean, foru eta udal hauteskundeetan ez dago halako beheranzko joerarik. M28ko bozketetan, beraz, ikusiko da orain dela hiru urteko abstentzio altu hori salbuespena izan ote zen, edo, aitzitik, horietan ere parte hartzeak behera egingo ote

Eskuin
espainiarzalearen
hausturak izango
dituen ondorio
elektolarek ekarriko
dituzte ondorio
politikoak, aurrerago
bada ere

duen, hauteskunde mota oso diferentek izan arren. Momentuz, inkestek ez dute beharadarik aurreikusit.

Nafarroa. Hauteskundeotan, nazio ikuspegi batetik, Nafarroa Garaian gertatuko dena zentrala izango da. Eskuin espainiarzalearen hausturak izango dituen ondorio elektolarek ekarriko dituzte ondorio politikoak, aurrerago bada ere. Horien artean, ea UPNk jite erregionalista azpimarratuko ote duen, espainiar nazionalismoaren gainetik. UPNren eta PPren arteko banaketan modukoak ez dira ondo aurreikusten inkestetan, eta beraz, adi begiratu beharko dira emaitzak. Aurreikusit bezala PSNk gidatutako ezkerreko gobernuaren errepikatzen bada, alderdien arteko indar harremanetan aldaketarik egon daiteke, eta horretan EH Bilduk zein paper joka dezakeen ikusteke dago. Ildo berean,

Iruñeko emaitzak hauteskundeotako interes gune nagusia izan daitezke, Nafarroan gertatzen ari den aldaketa sakonago baten erakusgarri izan daitezkeelako, baita PSNren jokabidea bertan determinantea izan daitezkeelako ere.


Egonkortasuna. EAEn foru hauteskundeetan ez da aldaketa handirik espero, eta udalerriek interes handiagoa piztuko dute (Gasteizko emaitzak, adibidez); baina ikuspegi orokor batean, blokeen arteko indarra gakoa izan daiteke, "bloke" hitza gehiegizkoa izan badaiteke ere. EAJrentzat Alderdi Sozialistaren bozak behera ez egitea, eta EH Bildurentzat Elkarrekin Podemosenak. Izan ere, norberaren emaitzak positiboak izan arren, bloke osoak lortutakoa erabakigarria izango da, kasu askotan, gobernuak eskuratzeko. EAEn alderdi biko sistema indartzen joan da azken garaian, baina horretan zirrikituak udal mailan sor daitezke, beste eremuetan baino errazago.

Udal mailako problematikak. Udal hauteskundeetan, joera orokorrean gain, tokiko dinamikek eragin handia izaten dute emaitzetan, eta ñabardura ugari egin daitezke udalerriz udalerrira. Adibidez, Bizkaiko zenbait eskualdetan agertu ziren tokiko plataformek zein indar izango dute? Edota Donostian turistifikazioari buruzko eztabaidak emaitzetan eragin handia izango ote du? Beste hainbat kontu izango dira herriz herri aztertzeko. ●

Oldarraldi judizialaren atzean



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



PAULA ESTÉVEZ

Udaletxera jo genuen aurrekoan. Zenbait lagun kezkaturik gaude gure herri euskaldun honetan erdara paisaia linguistikoa, besteak beste, apurka bereganatzen ari dela ikusita. Geure artean komentatzeaz kantsaturik, ardura daukan administrazioari helarazi genion egonezina. Eurak ere jakitun dira, noski, baina ostalaritza, merkataritza eta abarrei gonbidapenak egitetik harago, gauza gutxi ahal dela. Kontuz ibili behar dela ordenantzetan jartzen denarekin, helegiteak etor daitezkeelako.

Eta hala da. Auzitegiak hizkuntza politika egiten ari dira, gobernu eta administrazio organoen funtzioak lapurturik.

Ez naiz inozoa, ezer ez egiteko aitzakia perfektua ere izan liteke, baina izan dezagun gutxieneko konfiantza.

Edozelan, auzitegien jarduera ezin da isolatuki aztertu. Oldarraldi oso bat pairatzen ari gara euskararen kontra, berriz ere eta inoiz eten bada. Hasteko, auzitegiek ez lukete sententziarik emango, errekursoak sistematikoki jartzea norbaiten estrategiaren parte ez balitz.

Ideologikoki ere garatzen ari den estrategia honek, hizkuntza eskubideak ez ezik, beste eskubide batzuk kolpatzen dituzten estrategiekin puntuak partekatzen ditu. Aurrerapausoen aurreko *backlash* edo erreakzioa da. Eskubideak

aldarrikatzeak, jendartean bizitzea askotariko zapalketa sistema konplexuetan bizitzea dela barneratzera egin genuen. Horretan gabiltza eta funtsa horixe bera da kolpatzen ari direna.

Bionomioko elementu biak parekatzea, botere harremanak kontuan hartu barik, zapaldua eta zapaltzailea lekuz trukitzea dauka helburu. Azken sasoiko falazia handienetako bat da. Arrazoinamendu okerra izan arren, arrazoiketa logikoaren itxura izan dezake. Terminoen ondo jo dezakete belarrira, baina faltsukeriazko proposizioak dira.

Elebitasunaren elkarbizitza. Ni elebiduna izan arren, zu elebakarra bazara, nire hizkuntza ezagutzen ez duzun heinean, zure hizkuntzara behartu egiten nauzu. Hori ez da elkarbizitza. Hori zapalketa linguistikoa da.

Aukera askea. Ildo beretik, nik ezin dut aske aukeratu, nire hizkuntzaz aritzea galarazten badidazu.

Erdaldunen hizkuntza eskubideak. Gaztelara desagertzeko arriskuan dagoela eta Iturgaitz modukoen halako *boutadeak* albo batera utzita, zapalketa historikoa zelan edo halan zuzentzeko neurriak pribilegioekin nahasten dira nahita.

Kexu dira AEBetako WASP-ak, enpresek arrazializatutako jendea errazago

kontratzen omen dutelako. Kexu da 4.0 matxismoa, emakumeek omen dauzka-gun “pribilegio” legal eta administrati-boengatik.

Erreakzioa momentu aproposaren zain egoten da. Duela hogeit urte inguru Bertendonako martirien saiakera, esaterako, horrexetan geratu zen, CCOOen saiakera hutsean. Zer aldatu da, ba, azken urteotan? Tentsionamendua galdu dela esan ohi dugu. Hala botatzen dugu baieztapena, aseptiko, neutro. Gatazka linguistikoa gatazka politikoa da. Aztertu beharko genuke, autokritikaz, tentsionamendu politikoak nondik egin digun ihes. Borroka ideologikoa egiteari muzin egin diogun martxa berean beste batzuek “gera kultural” delakoari ekin diote gogoz.

Zenbaitek “euskara denontzat” nahi dutela esan arren eta beste batzuek -edo bertsuek- “herrialde eleaniztuna helburu” dutela saldurik ere, *blue lives matter* dioen polizia bezalakoak dira, arma eskuan, 16 urteko gazte beltza errepidean odolusten den bitartean. Feminazi deitzen digun gizona dira, euren gainetik jarri eta munduan agindu nahi dugula pontifikatzen duena.

Eta euskaraldia, korrika eta abar guztiekin bat egin nahi izango dute, euskaltzale etiketapean. ●



ANDREA BARTOLO
AZET ETXEBIZITZA
SINDIKATUKO KIDEA

Gerra kulturalak

Azkenaldian, “gerra hibridoa” gatazka garaikideen forma berria dela esaten da. Gerra hibridoa, arrunki, gatazka militarretik haratago doan gerra moduan ulertzen dugu, konplexu militar-industrial mugiarazteaz gain, “gizarte zibileko” bitartekoak eta subjektuak ere mobilizatuko lituzkeena. Gerra hibridoaren ulerkerak horren arazoa, ordea, haren analisi irismen mugatua da. Izan ere, akatsa litzateke gerra hibridoa gerra garaiko tresnatzat soilik hartzea. Gerra hibridoa kapitalak “bake garaian” erabiltzen duen gerra baita. Prozesu horri izena emateko, Abya Yalan aspalditik hitz egin izan da “gerra kulturala”.

Ekoizpen modu kapitalista gerra-kulturalak sortzeko makina bat da, are gehiago, zibilizazio krisi garaian. “Mendebalde kolektiboaren” inperialismoak gerra kulturalak eta kognitiboak etengabe ekoizten ditu, bere existentziaren eta hedapenaren baldintza gisa. Gerra kulturala ez da soilik NATOren aldeko gerra propaganda, komunikabideen desinformazio kanpainak edo zentsura mediatiko-politikoak. Gerra kulturala bake garaian garatzen den ideologia kapitalista ere bada; hau da, Hollywooden eta Netflixen produzitzen dena, edo Mendebaldeko GKEen bulegoetan ekoizten den Europako Ekialdeko “deskomunizaziorako” errebisionismoa edota Abya Yalako herriekiko inperialismo kulturala.

Eliades Acostak *XXI. mendeko inperialismoa: gerra kulturalak* liburuan esaten digun bezala, gerra kulturala ez da soilik gatazka militar zabalago baten barruan erabiltzen den tresna. Tresna izatetik haratago, gerra kulturala gerra konbentzionalaren hitzaurrea eta jarreraipena izaten da. Gaur egun, inperialismo kulturalaren azken helburua ez da etsaia den estatuaren muga fisikoak urratzea, baizik eta gizakion arima eta gogoa kolonizatzea. Gerra ideologiko, kultural eta kognitibo horien gakorik adierazgarriena, beraz, horren helburua da: ofentsiba inperialista global berria erakusten ari zaigunez, helburua ez da soilik etsaia den herria ideologikoki desarmatzea (kanpora begira), baizik eta erdigune inperialistan bizi den herriaren zentzu kritikoa sunsitztea eta deuseztezea (barrura begira).

Indar produktiboak indar suntsitzailer bihurtu diren kapitalismoaren fase honetan, “gizarte zibilaren” militarizazioa bermatzeko ezinbestekoa da hura ergeltzea, kapitalaren interesen zerbitzura lan egingo duen kanoi bazka moduan erabiltzeko. NATO munduko herri langileen aurka abiatutako ofentsiban gu ez gaude (soilik) etsaiaren kontrako gerran. Gu (gure gogoa eta arima), erasoaldi inperialista globalaren gerra harrapakin bihurtu gaituzte. ●

Erreputazioa



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Era bitxi batean sinatzen du erreputazioak. Ez dago jakiterik, bere berri emateko, ezker edo eskuin eskua darabilen. Ez eta tinta bereziren batez baliatzen ote den ere, euskaldun gehienok hauteskunde kanpainan gauden honetan, arrasto nabarmenago bat uzteko errubrikan.

Hurbil-hurbileko jendakiak ditu Euskaltzaindiaren Hiztegian, baina erreputazio hitza ez duzu bertan aurkitu; bai, ordea, Orotarikoan nahiz Egungo Euskararen Hiztegian. Horrat akaso, ezin iradokitzaileago, solasaren definizio funtzionala: batean balekoa daitekeenak kale egiten ahal du bestean.

Antzeko erantzuna eman zion Stefan Pongo kamioilariak Txekiako telebista bateko aurkezle bati. Ingeleseztako azpititulak irakurri dituzu zuk *Pongo Calling* dokumentalaren pasarte horretan: *a reputation is a strange thing*. Txekiar eta britainiar herritartasuna zuen garrantziora ijitoak kontesta ederra eman zuen. Galderaren gaia, Txekiako Gobernuaren hamar urtez egondako presidentek emana zuen aurretik adierazpen publiko batzuetan: herrialdeko ijitoen ospe txarra.

Era bitxi batean mugitzen da erreputazioa. Kanpaina egiten beti. Harat-honatan. Ezker-eskuin. ●

Argazkiko beltztxoa



**LAURA PENAGOS
RODRÍGUEZ**
ANTZEZLEA ETA
SORTZAILEA

Leku zalantzarri, eztabaidagarri, horietan ibiltzea egokitu zaizu, tokatu zaizu isil-isilik egotea, oin puntetan egotea "zerbait" irabazteko, aukeratxoak aprobetxatu behar dituzu, bestela ez baitago etorkizunik. Sinesen duzu ari zarela, eta astiro-astiro hasi betetzen laukiak, galdetegiak, itxaropenak, dena ez dago galduta, segi, segi eta ez duzu amorerik ematen, ez duzu askatzen zure bizitzan asmorik, kontra-koa, gogor heltzen diezu amildegian ez erortzeko, ez zaudelako etxean, inork ez zaituelako eutsiko lurraren kontra sekulako zartakoa hartzen baduzu. Horrela jarraitzen duzu, ez duzu beste biderik. Aurrera, aurrera esaten diozu zeure buruari, lortuko duzu, dena ongi aterako da, zure ibilbidea egiten ari zara, "sortuz eta sortuz gure aukera, atsedenik hartu gabe". Den-dena egiten duzu, dena ematen duzu, "Waiting for the miracle", hala ere ez. Ia-ia, baina ez. Ez zara ailegatzen, "hurrengorako, eskerrik asko, zurea bai meritua!" esaten dizute, baina... ez. Birtartean, zeure baitan pentsatzen duzu "kaka zaharra!". Zerbait gaizki egin dut, nire jarrera izango da, beno, lasai, ez da zuretzat, zurea ailegatuko da, fidatu.

Herri guztietan
gertatzen da,
botere ekonomikoa,
politikoa eta kulturala
oso zentralizatuta
daude, nahiz eta
euskalduna zaren, ez
zara ailegatzen lehen
mailako euskaldun
izatera

Orduan errealitateak masailekotxoa ematen dizu, duela urte batzuk sumatzen zenituen gauzak pilatu zaizkizu burura, errurik gabe; argi ikusten duzu, euskal kulturaren bada hegemoniarik eta hori zama egiten zaizu. Baina ez da berria, badakizu, ze inozoa izan zaren! Zerk eramaten zaitu hori pentsatzera, alegia, hemen beste errealitate bat posible izango

litzatekeela uste izatera? Herri guztietan gertatzen da, botere ekonomikoa, politikoa eta kulturala oso zentralizatuta daude, nahiz eta euskalduna zaren, ez zara ailegatzen lehen mailako euskaldun izatera, ezta pentsatu ere. Ea bigarren mailako euskalduna... bai zera! Hirugarren mailako euskalduna naiz ni? Eta orduan, eskolan bezala sentitzen zara, irakasleak "justu-justu gainditu duzu, baina hurrengorako..." esaten zizunean bezala. Eta zu periferian zaude zutik, izerditan borrokatzen, eta hala ere irribarre gozua egiten duzu, deus gertatuko ez balitz bezala.

Zure intimitatean, lur jota, egoerak errepasatzen dituzu, eta bat-batean sortzen zaizkizu buruan galderak, hutsik zaude, ezin duzu gehiago, zeure buruari galdetzen diozu zer zentzu duen zure bizitzak ez baduzu sortzen, ez badituzu zure kreatibitatea eta gaitasunak gartzatzen, ez bazara izaten. Eta meditatzen duzu egunez eta gauez, arnasa hartzen duzu, otoitz egiten duzu, denetarik egiten duzu, baina ez da nahikoa. Egiten dituzun ahaleginak ez dira nahikoak, ez zara nahikoa engranaje honetan, ez zara emankorra sistemarako. ●

U

I

K

UPV / EHU
UDA IKASTAROA
CURSOS DE VERANO

UDA IKASTAROA
CURSOS DE VERANO
SUMMER COURSES

www.uik.eus

MATRIKULA
IREKIA

PIZTU JAKIN-MINA

UDAKO TOPAKETAK

Uztailak 3, 4 eta 5, Donostian



hh
hik hasi


Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

Informazioa eta izen-ematea: www.hikhasi.eus

Lurraren defentsa

bizitzaren eta burujabetzaren borroka da

Makroproiektu eoliko bat hemen, fotovoltaiko bat hor, makrogranja bat honaxeago, makronegutegia haraxeago, erraustegi bat izkinan, makrotrenbidea erdian... Ingurumena eta berarekin batera bizitza kaltetzen eta hipotekatzen duten multinazionalen proiektuak biderkatzen doazen heinean, aktibatuz doaz, baita ere, hauei aurre egiteko tokian tokiko herritar taldeak. Hauen guztien artean harreman sareak josiz doaz eta berrogeita hamar taldek baino gehiagok manifestazio deialdi bateratua egin dute maiatzaren 20rako, Gasteizen 18:00etan San Anton plazan da hitzordua. Deitzaileekin bildu gara.

 **ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA**  **DOS POR DOS**

Lurraren defentsa ekarri dute lehen lerroa talde hauek, mundu osoan jatorrizko herriek egin ohi duten moduan. Izan ere, Euskal Herriko mendialdera eta landa eremura iritsia da kolonizazioa. Sistema kapitalistak Lurraren mugekin topo egin du eta klima larrialdira, biodibertsitatearen galerara, materialen agortzera... ekarri gaitu. Probetxu ekonomikoa ateratzen dutenek nahiago dute, antza denez, sistema aldatu beharrean industrializatu gabe geratzen diren eremu apurak bereganatzea eta logika berarekin ustiatzea, hori bai, lazo berdez bilduta eta arazoaren irtenbide den opari gisa aurkeztuta.

Manifestazioa antolatzen buru-belarri dabiltzan hiru kideri eman diegu hitza: Rebeka Gonzalez de Alaiza eta Itsaso Balza de Vallejo Arabako Mendiak Aske eta Araba Bizirik taldeetako partaide dira eta Gaizka Otamendi, Sañu Bizirik taldekoka da. Hauek ohartarazi digute lazo

berdez bildutako "opari" hori etorkizuna hipotekatuko digun zuloa dela, lurrarekin batera gure elikaduraren eta bizitzaren burujabetza dagoela jokoan eta sistema kapitalistak ekarritako krisi anizkoitz honen aterabidea justu beste norabidean dagoela: eredu aldaketan. Zergatik ez da pil-pilean diren gai horiez eztabaidatu hauteskunde kanpainan?

HARREMANAK ETA IRAKURKETAK JOSTEN

Manifestazio hau da makroproiektuen aurkako talde guztiek elkarrekin egingo duten lehen ekintza. Itsasok azaldu du nola joan den sarea zabaltzen: "Arabako Mendiak Asken batu ginen eoliko kontrako borroka eta AHTren aurkako. Tuestan negutegi hidroponiko bat egiteko proiektua agertu zen, eta zentral fotoboltaikoen kontrako mugimendua ere gehituta sortu zen Araba Bizirik". Geroztik sarea pixkanaka josiz joan da

Euskal Herri osoko taldeen artean. Sare hori "indarrak batzeko, informazioa partekatzeke eta megaproiektuak geldiarazteko" oso beharrezko zaiela azaldu dute.

Gaiak eta ikuspegiak batuz doaz partekatzen duten borrokan. Gaizkak hone-la laburtu du zein ideiak batzen dituen: "Lurraren defentsa, elikadura burujabetza, eta eredu ekonomiko hau zalantzan jartzen dugula, bera delako egoera honetara ekarri gaituena". Rebekak gehitu du: "Lurraldeari eustea ere bai. Gure lurraldeaz jabetzen ari dira eta hori azaleratzeko sortu da mugimendu hau. Bioaniztasuna beste zutabe bat da guretzat: jaso duguna etorriko diren belaunaldiei utzi behar diegu, ezin dugu gehiago txikitu. Beste ardatz bat jendearen erabakimena da: erabakiak zentralizatzen ari dira. Arabako kasuan, zentral eoliko baten proiektua aurkeztu den kasuetan, kontzejuek ezetza esan dute. Kontzejuek



dira lurraren jabeak eta lur horiek kudeatzeko ardura dutenak. Lur horien jabetza ez da pribatua eta horri esker hobeto mantendu dira orain arte".

Gaizkak ohartarazi du ezberdina dela herritar, administrazio eta enpresak jokatzeko ari diren papera, lurraren gatazka honetan: "Multinazionalen gurdari tiratzeko helburuarekin ari dira proiektu hauek egiten eta gainera, herritarroei ez zai- gu uzten gai honi buruz debatitzen. Herritarrok gure lurrian jabe izate- a nahi dugu". Rebekak gehitu du: "Enpresen menpean gaude eta gai- nera administrazioa haien bidea eta tramitazioak errazten ari da. Berez, enpresak dira proiektuak non jarri erabakitzen ari direnak".

ZAINDU LANTZEKO LURRAK ETA BIOANIZTASUNAREN BIZILEKUAK

"Makroproiektu hauek denak ari dira bioaniztasunarentzako oso hauskorrak diren lekuetan proiektatzen. Mendietan jartzea da justu egin beharko ez litzatekeena", salatu du Gaizkak. Proiektu hauek jartzekotan gune industrialetan eta jada artifizializata dauden guneetan jarri behar liratekeela argudiatu dute. Gaizkak jarraitu du: "Gipuzkoan, 254 pertso- na bizi gara kilometro koadroko eta jaten dugun elikaduraren %4ra ere ez da iristen bertan ekoizten duguna. Lehen sektorea erabat txikituta dau- kagu eta zer egin behar dugu, geldit- zen den lurra kendu eta multinazio- nalen esku jarri? Biharko egunean lur horretatik sor daitezkeen elikagaiei aukera itxi?". Rebekak ohartarazi du energia krisiarekin beharrezko izan- go dela elikagaiak gertu eskuratzeko aukera izatea: "Lur emankorrean eguzki plaka jarrita, hortik ez dugu ezer jango. Petrolioia gainbeheran dago, pentsatu behar dugu gure eli- kadura nondik datorren eta etorki- zunean hemen egin beharko dela: fosilekin moztu behar dugu, sasoiko elikagaiak jan..."

Natur eremuetara eraman nahi di- tuzte proiektuak, baina teknologiak

ez duela natura ordezkatzeko oroitarazi du Itsasok: "Hainbeste arbola kenduko dituzte zentral eoliko bat jartzeko. Baso batek egiten duena, uraren zikloa, karbonoan eta abar, ez du inongo makinak egiten. Ezinezkoa da". Rebekak jarraitu du: "Proiektu horiekin lurraldeak zatikatzen dituzte. Ekosistema batek, sano egoteko, inguruko ekosistemak behar ditu espezieak ugaltzeko eta genetikoki aberatsak izateko, honela lortzen baitute ingurura egokitzea eta etorriko zaizkigun aldaketei aurre egitea. Hesiak jartzen ditugunean, pobretzen joaten dira landaretza eta animaliak, ez delako espezie berekoen arteko harremanik garatzen eta pixkanaka ekosistema horiek ahuldu egiten dira. Espezie guztien beharra dugu naturak funtzionatu dezan. Espezie txiki bat bukatzeak aldaketa oso latza ekarri dezake".

Naturaren eta izaki bizidunen parte garenez, mendialdean bizi den jendea ere kalte egiten zaiela oroitarazi du Rebekak: "Proiektu hauekin sakrifikatu beharreko zonak markatzen ari dira. Hori pertsona batzuk baztertzea ere bada, bizi garen lekuaren arabera. Bi kolonialismo mota daude orain: batetik, jarraitzen dugu gure ongizatea asetzen Hegoalde globaleko herrien bizkar eta horietan baztertutako eremuak sortzen dira, herri osoak beraien lurretatik bidaltzen dituzte; eta orain gauza bera egiten ari dira Euskal Herri barruan, sakrifatu beharreko zonaldeak markatuta. Kolonialismoa etxe barrura iritsi zaigu". Gaizkak jarraitu du: "Bidali egin nahi gaituzte landa eremutik, denok gune urbanoetan sartzea nahi dute. Landako jakintza eta kultura erabat etetea nahi dute. Guretzat lurra bizitzeko modu bat da, eta denbora oso gutxian txikitu egin da lur bizi hori".

Itsasoren ustez bada beste arrazoi bat makroproiektuak landagunean egiteko: "Landa eremuan jende gutxiago bizi denez, agian politikariek pentsatzen dute proiektu hauek ez dutela hainbeste erantzunik jasoko. Baina landa eremuak guztiontzako dira beharrezkoak, hirian bizi den jendearentzako ere bai".

"HAU EZ DA TRANTSIZIOA"

Itsasok dio makroproiektu hauek ez diotela irtenbidea ekarriko anizkoitza den krisiari: "Saltzen diguten ipuinak ez du ezer konponduko, nahiz eta dena eolikoz eta fotovoltaikoz josi, batzuek poltsikoak beteko dituzte eta arazoak



"Energia enpresak beraien trantsizioa egiten ari dira, ez trantsizio ekosoziala"

Rebeka Gonzalez de Alaiza

hor jarraituko du, edo gero eta arazo gehiago izango ditugu". Gaizkak berretsi du: "Eredu ekonomiko honekin arazoak ez dauka amaierarik. Mendi denetan eolikoak jarrita ere, inoiz ez da nahikoa izango, hazkundearen logika baitago muinean". Itsasok zera gaineratu du: "Proiektu hauek bertako baliabideak hartu eta eraman egingo dituzte baina hemen ez da ezer geratuko". Rebekak azaldu duenez, "argindarra Frantziara eta Alemaniara eramateko ari dira prestatzen. Kolonia energetikoa izango gara haientzat". Gaizkak hau gaineratu du: "Laster pasatuko gara autopista elektrikoak egitera energia berriztagarriak esportatzeko. Espainiako Estatua Europako 'bateria' izango dela esaten da, eta Euskal Herria zati batean ere bai".

Rebekaren ustez, hau ez da trantsizioa: "Energia enpresak beraien trantsizioa egiten ari dira, ez trantsizio ekosoziala: fosiletik ateratzen dituzten etekinak orain berriztagarriekin atara nahi dituzte, baina gure diruarekin, ze Next Generation funtsek guri ekarriko digute zorra eta etorriko diren belaunaldientzako zama handia izango da, haien aukerak jaten ari gara". Gaizkak "lapurreta" deitu dio jokaldi honi: "Gure diruarekin egiten dute negozioa, eta gure lurak kentzen dituzte beraien irabazirako. Negozio biribila da". Rebekak dio epe motzeko adabaki bat baino ez dela ingurumena suntsituko duen planteamendu hau: "20-30 urtetan, mendi eta nekazal lur guztiak kolonizatutakoan, ez da fosilik egongo berriro zentral berriztagarriak berritzeko eta hantxe geratuko dira azpiegitura guztiak, bidean biodibertsitatea galduta, komunalak galduta, herriak galduta... eta zer jango dugu?". Gaizkak erantzun dio: "Haragi sintetikoak, tomate hidroponikoak... hori da haien proposamena". Lurra galtzea bizitzarako burujabetza galtzea dela diote: "Lurralterik ez badugu, haiek jabetzen badira gure lurraldeaz, zer borroka geratzen zaigu? Haien menpe geratuko da gure elikadura eta gure bizimodua" eta lema hau oroitarazi dute: "Lurralterik gabe borrokarik ez eta borrokarik gabe lurralterik ez".

Trantsizio ekologiko eta soziala justu kontrako norabidean egin behar dela berretsi dute hiru kideek: "Plane-



Ezkerreko argazkian, Itsaso Balza de Vallejo eta Rebeka Gonzalez de Alaiza, Arabako Mendiak Aske eta Araba Bizirik taldeetako kideak. Eskuineko argazkian, Gaizka Otamendi, Sañu Bizirik taldeko kidea.

taren mugak aintzat hartuta". Gaizka-ren hitzetan, "eredu ekonomiko honek ekarri gaitu klima larrialdi honetara eta bioaniztasunaren galerara. Ezin da horrela jarraitu". Rebekak izena jarri dio: "Kapitalismoak dena nahi du: gure esku dauden lurrak nahi ditu, orain fronte hori zabaltu du sistemari jarraipena emateko, izan ere, kapitalismoa naturaren eta jendearen esplotazioan oinarritzen da. Trantsizioa izango bada, eredu aldaketa etorri behar da, bai ala bai". Gaizka konbentziturik dago aldaketa derrigorrean etorriko dela:

"Bi bide daude: bata eliteena, hauek dena eskuratzen ari dira; eta bestea da lehentasunak jartzea, baina denontzako"

"Nahi eta nahi ez, hemendik urte batzuetara aldaketa oso sakona jasango du gure bizimoduak. Energia fosilak eta mineralak agortzen ari dira eta hori ordezkatzeko duen beste energia iturririk ez dago. Desazkundea etorriko da; ez guk nahi dugulako, baina etorriko da, eta akaso hasia da etortzen eta ez gara konturatu".

Rebekak trantsizioari begira dugun dema azaldu du: "Bi bide daude: bata eliteena, hauek dena eskuratzen ari dira eta ezer gertatzeko ez balitz bezala jarraitzen dute haien bizitzarekin; gero eta handiagoa da haien eta gure arteko arrakala, besteak beste, dagokigunaz jabetzen ari direlako. Eta beste bidea da lehentasunak aztertzea eta daukagunarekin zer asetu dezakegun lantzea, baina denontzako. Planteamenduak orokorra izan behar du, guztiontzako. Eta ekonomia berriz berlokalizatu beharra ikusten dugu, eta energia ere maila lokalean ekoiztu behar da. Eta hori guztia egiteko gure arteko harremanak landu behar ditugu, gauzak modu komunitarioan egin, gauzak kudeatzeko beste era batzuk martxan jarri oligopolioen esku utzi gabe..."

ALDERDI POLITIKOEI MEZUA

Hauteskunde bezperetan deitu dute *Lurraldearen defentsan Euskal Herria Bizirik* manifestazioa, Itsasok argitu duenez, "erakutsi nahi dugulako jende asko ez gaudela ados egiten ari direnarekin. Eta gai hau mahai gainean jartzeko". Izan ere, trantsizioa egiteko ereduaren talka ez da eztabaidagai izan hauteskunde aurrean: "Ez dugu alderdirik ikusten eredu aldatzeko proposamen zehatzik duenik. Aterperik gabe gaude, umezurtz sentitzen gara Euskal Herrian", adierazi du Rebekak. Gaizkak zera gehitu du: "Politikariek herritarron interesak babestu beharrean, askotan enpresa multinazionalen zerbitzura daudela ematen du. Uste dut beldur direla esateko eredu honek eman duela eman beharrekoa eta beste bide bat hartu behar dugula. Inor ez da ausartzen gai horri adarretatik eusten. Politikariek abilitate handia dute momentuko adabakiak jartzeko eta handik 20 urtera, hurrengo gizaldiak ordaindu behar izaten ditu lehen egindako adabaki horiek. Uste dut horretara doazela". Rebekak hala adierazi du: "Politikarien planteamendu hauek segidistak dira eta enpresen menpe daude". ●

“ ”

Energia kontsumoa %80 jaitsi beharko dugu hurrengo hamarkadetan

Antonio Turiel

Energiaren gaian aditu eta dibulgatzaile nagusietakoa da Antonio Turiel (Leon, 1970) fisikari eta CSICeko ikertzailea. *The Oil Crasch* blogean jaso ditu bere tesiak, eta azkenaldian *Petrocalipsis* –Txalapartak berriki euskaraz argitaratua– eta *Sin energia* liburuetan ere bai. Erregai fosilen amaierarekin energia kontsumoaren “beherakada handia” datorkigula azaltzen ari da bere hitzaldietan. Donostian izan gara berarekin, Uliako Mintegietako parkean hirurehun pertsonen aurrean hitz egin baino lehen.

 URKO APAOLAZA AVILA  DANI BLANCO

Zer esan nahi duzu “beherakada handia” diozunean?

Orain sartzen ari garen garaia da, energia kontsumoa ezinbestean gutxituz joango da hurrengo hamarkadetan. Prozesu hori ezaguna da eta ez dago irtenbide teknikorik. Erregai fosilak agortzearen ondorioz produkzioa jaisten hasi da, batzuetan mantsoago eta bestetan azkarrago.

Noiz iritsi gara *peak oil* delakora?

Benetako petrolioaz hitz egiten badugu, petrolio gordin konbentzionalaz, hau guztia 2005ean hasi zen. Orduan 70 milioi upel produzitzen ziren egunero, eta gaur egun 60 produzitzen dira. Galera hori konpentsatzeko petrolio ez-koben-

tzionala sartu zuten, frackinga eta horrelakoak. Horrekin lortu dugu petrolio osoaren gailurra edo maximoa 2018ko azarora arte atzeratzea, baina geroztik %3,1 jaitsi da eta aurreikuspena da horrela jarraitzea. Energiaren Nazioarteko Agentziak eta Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundeak onartu dute 2030. urtera arte beheraka joango dela.

Baina zertaz ari gara, eroriko handi batez edo denboran luze joango den beherakadaz?

Bi gauzak. Erorikoa garrantzitsua izango da, baina pixkanaka etorriko da. Hamarkadak emango ditu, eta prozesua amaitzean ikusiko dugu energiaren kontsumoan erraz jaitsi behar izan dugula

%80. Gertatzen dena da hamarkada hau kritikoa dela, inflexio puntu bat delako eta ikusiko delako betiko politikek ez dutela funtzionatzen; egoera larriagotu besterik ez dutela egiten. Hau jadanik gertatzen ari da, banaketa ez delako homogeneoa; Sri Lankan adibidez askoz gehiago ari dira nabaritzen.

Kasu honetan ere desberdintasunak egongo dira herrialdeen artean, beraz.

Bai, eta Europa ez dago hoberen kokatuta. Horregatik egin du energia berdearen alde hain modu desesperatuan, beste errekurso batzuk aurkituko ditugulakoan. Diskurtso hori tontakeria bat da. Ikatzak goia jo du, gas naturala jotzeaz



da eta uranioa goitik behera erortzen ari da... Baina petrolio dago oinarrian, eta bereziki gauza oso beltz bat, diesela deitzen dena.

Petrokalipsia liburuan diozu petrolio zerbait “magikoa” bezala ikusten dela, barruan energia asko duena. Magia hori ordezkatu nahian gabiltza fusioa, hidrogeno berdea eta halakoekin?

Ikatzak ere energia asko gordetzen du. Baina petrolio likidoa da, eta ibiltzeko erraza. Ohituta gaude gauzak azkar ibil daitezen. *Petrokalipsia*-n konparazio hau egiten dut: badakizu litro bat gasolinan zenbat energia dagoen? Sasoitsu dagoen pertsona batek 108 orduz lan

“ ”

***Berriztagarriek
badute arazo larri
bat: erregai fosilen
menpekoak direla.***

***Aerosorgailuen
konpainia gehienek
kiebra joko dute
azkenean***

egiten sortzen duena adina. Litro bat gasolinarekin kotxe normal batek 10 edo 15 kilometro egin ditzake... Imaginatu zure burua kotxe horri bultzaka.

Begira, lehen hidrogenoa aipatu didazu. Ez da energia iturri bat, bektorea da, baina tira. Ez du inolaz ere petrolioaren energia dentsitaterik. Makinetan erabiltzeko konprimitu egin behar da eta -40 gradutara hoztu; produkzioan eta transformazioan dituen galerak izugarriak dira, eta azkenean, auto batean erabiltzeko petrolioak baino sei aldiz lan gutxiago egiten du. Kaka zahar bat. Ohi-tu gara pentsatzera energia dentsitate handiko erregaiak normaltasuna direla, salbuespena direnean.

Dieselarekin zer ari da gertatzen? Zergatik da hain berezia?

Diesela sistemaren odola da. Kamioiak, makinaria pisutsua, hondeamakinak, meatzetako garraioak... dieselarekin ibiltzen dira. Eta beste erregaia dieselaren bezain onak ez direnez, gehien erortzen ari dena da. 2015ean jo zuen goia, eta 2018ra arte gorabeherak izan zituen, baina orain %15 erori da eta okerrera doa. Garraioari eta meatzaritzari asko ari zaio eragiten; baina batez ere nekazaritzarekin gertatzen ari denak kezkatu behar gaitu, diesel gabeziak nekazal ekoizpena garestitu duelako eta ongarrizko sustantzia gutxiago dagoelako. Gehitu iezaiozu horri sikatea... Ez dakit hemen nola zaudeten, baina Katalunian ni bizi naizen tokian, Figueresen, jadanik hasi gara ur murrizketekin.

Zuk errazionamenduaz hitz egiten duzu maiz. Hori datorkigu?

Nahiz eta horretaz ez den hitz egin nahi, gobernuak neurriak ari dira onartzen norabide horretan. Uztailen gas kontsumoan %15eko murrizketa adostu zuten Europar. Industriako geldialdiari esker lortu zen hainbeste jaitea; Valentzian adibidez gasa erabiltzen duten adreilu, zeramika eta beira enpresa pila batek itxi zuen. Gero, irailean, elektrizitatearen kontsumoa %10 jaitea onartu zuten, eta lortu da, gauza beragatik. Pentsatzen dut Euskal Herria gune industrializatua izanik nabaritutako zela; Europar behinik behin industria geldialdia alimalekoa izan da. Eta orain Europako Batzordeak proposatu du beste %11,3 jaitea 2030 arte. Herrialde batzuk neurri oso gogorak ari dira hartzen: Frantziako Estatuan diote 2025erako %10 jaitsi behar dutela energia kontsumoa eta 2050erako %40; Alemaniaren kasuan kontsumoa %26,5 jaisteko legea ari dira eztabaidatzen... Zifra ikaragarriak dira eta ondorio ekonomikoak izango dituzte. Neurri horiek guztiak, funtsean, errazionamenduak dira.

Desazkundera ez esatearren...

Desazkundera hitza ez dute erabiltzen tabua delako. Neurri teknikoak balira bezala aurkezten ari dira eta niri horrek ematen dit amorru gehien. Murrizketa hauek legez arautzen eta derrigortzen badituzu, errazionamendu plan bat ari zara ezartzen. Ari zara esaten zeinek kontsumitu dezakeen eta zenbat kontsumitu dezakeen. Eta kontsumoa proportzionalki banatzen baduzu, horrek esan nahi du gauza guztiek inportantzia bera dutela zuretzat.

Hor gizartearen ikuspegi bat dago, eredu politiko bat. Oso garrantzitsua da ulertzea errazionamendu guztiek izaera politikoa dutela. Azkenean hartu beharko dituzu halako erabakiak: zer da garrantzitsua goa, auzoko denda edo Amazon?

Esan duzu kontsumoa %80 jaitsi beharko dugula azkenerako.

Gelditzen zaigun zatiak berriztagarria izan behar luke?

Halabeharrez. Baina berriztagarrien trantsiziorako proposatzen ari diren ereduak, REI (Renovable Eléctrica Industrial) izenekoak, muga batzuk ditu. Horietako bat da erabili daitekeen energia kopuru maximo bat dagoela. Ez dakigu zenbat den, eta eztabaidak daude, baina orain ikusten ari gara Ipar Itsasoan aerosorgailu pila bat jarri dituztenean potentzial eolikoa %20 jaitsi dela, elkar eragiten dutelako.

Zer esan nahi du horrek, haizea ere gastatzen dugula?

Haizearen energia mugatua dela. Errota asko jartzen dituzunean baso efektu bat sor dezakete. Eta haizeak ezin duenean basoa zeharkatu zer egiten du? Inguratu egiten du. Hala ere, muga hori ez da larriena, oraindik energia asko produzitzeko aukera egon daitekeelako.

Ze beste muga dituzte berriztagarriak?

Lehenik eta behin material falta. Material asko erabiltzen da eta ez dago nahikoa planeta osoak trantsizioa egin dezan. Eta garrantzitsua da planeta osoak egitea –ez bakarrik AEBek, Europak edo Japoniak,

Energiaren Nazioarteko Agentziak bul-tzatzen duen bezala–, ze material horiez hornitzen gaituzten herrialdeak pikutara joaten badira, ez dakit nondik aterako ditugun litioa, kobaltoa eta behar diren gauza horiek guztiak. Gainera, sistema horiek bizitza ziklo bat dute, eta amaitzen denean ordezkatu egin beharko dira material berriei.

Euskal Herrian badago eztabaida eolikoaren boom honekin. Esaten digute oraingo errota handiagoak baina eraginkorragoak izango direla, lur gutxiago okupatuko dutela...

Hemen promesa asko dago eta errealtate oso gutxi. Berriztagarriek badute beste arazo larri bat: erregai fosilen menpekoak direla. Oraindik ez du inork sortu aerosorgailurik edo plaka fotovoltaiorik erregairik erabili gabe. Autore askok diote berez erregai fosilen luzapenak direla. Eta horrek aerosorgailuak sortzen dituzten konpainiei eragiten die. Joan den urtean munduko bost konpainia handienek galera izugarriak izan zituzten: Vestas-ek 1.500 milioi dolar galdu zituen, Siemens-Gamesak 2.000 milioi dolar, General Electric-ek 2.200 milioi... Arazoak dituzte aluminioarekin eta altzairuarekin, materiala berandu iristen delako edo ez delako iristen behar bezain beste.

Eta nola sostengatzen dira?

Oraingoz bankuek finantzatuta daude, baina noski, bideragarritasun plan bat eskatuko diete, eta enpresa horietako gehienek kiebra joko dute azkenean. Buztinezko hankak dituzten erraldoiak ari gara



sortzen. Iazko galeren zati bat izan zen 5 MWko aerosorgailu batzuk lehertu egin zirelako. Ez ziren asko izan, agian %0,05, baina hutsegite horiek ez zituzten espero eta aerosorgailu guztiak errebisatu behar izan zituzten. Desesperaturik daude. Aurrekoan Vestas-en lan egiten zuen pertsona batekin izan nintzen eta esan zidan ez dakitela zer egin. Esaten dute 10 edo 15 MW-ko munstroak eraikiko dituztela, oraindik ez dutenean 5 MW-ko ingeniari-tza menperatu. Kapitalismoaren aurrera ihes tipikoaren parte da hori.

Hormigoiaz ari naiz akordatzten orain, ez dakigula zenbat iraungo duen.

Hormigoi armatua ere pikutara doa, baina hori hobeto azalduko dizu Antonio Aretxabalak.

Berriztagarrien azpiegiturekin burujabetza energetiko gehiago izango dugula diote gure agintariek.

Burujabetza energetikoaren argudioa Katalunian ere erabiltzen da. Baina nola lortuko duzu mirari hori? Kontsumitzen dugun energiaren %20 iristen zaigu soilik elektrizitate bidez, zeren eta energiaren zati bat ezinezkoa da elektrifikatzea. Gainera, paradoxikoa da: argindarraren kontsumoa jaisten ari da 2008tik. Ari gara elektrizitate sistema pila bat jarri nahian, argindarra buruz gainetik ateratzen zaigunean.

Eta zergatik ari da jaisten argindarraren kontsumoa?

Batez ere deslokalizazioengatik, enpresak dira argindarraren kontsumitzaile nagusienak. Errendimendua ere hobetu da, baina aldiz, etxeko kontsumoa handitu egin da. *Jevonsen paradoxa* deitzen zaio horri: sistema efizienteagoak sortzen badituzu argindarra aprobetxatzeko, LEDak kasu, ba gutxiago jarri beharrean argi gehiago jartzen dituzu azkenean.

Egungo teknologiek ezin zaio elektrizitate horri guztiari beste erabilera bat eman?

Zein dira teknologia horiek? Auto elektrikoa? Jendeak gero eta gutxiago sinesten du horretan, ikusi delako zer eskatzen duen: oso garestia da, errendimendu eskasa du, eta berriztagarriei pasatzen zaien bezala, oso urriak diren materialekiko menpekotasuna du (litioa, manganesoa, kobalto, nikela...). Ezin dituzu 1.400 milioi auto elektriko egin planetan, orain barne-konbustio motorrak dauden bezala. Bistan da au-



“ ”

Neurri teknikoak balira bezala aurkezten ari dira; baina murrizketak legez arautzen eta derrigortzen badituzu, errazionamendu plan bat ari zara ezartzen

toa soilik gutxiengo batek eskura izango duen zerbait izango dela.

Zein uste duzu izango dela etorkizuneko mugikortasuna?

Sitgesen nazioarteko kongresu bat egin genuen, katalanez hitz egin genuen baina zin dagizut nazioartekoa zela... [barreak]. Mahai-inguru batean Bartzelonako Metropolitiko Garraio Agintaritzako zuzendariarekin eta hainbat enpresetako kideekin hitz egin nuen. Garbi dute etorkizuneko eredua mugikortasun zerbitzuak eskaintzea izango dela. Jendeak ez du autorik izango, *car sharing* eta antzeko alokairuak erabiliko ditu. Esaten da autoak denboraren %96 aparkaturik egoten direla eta espazio asko okupatzen dutela. Zerbitzu horiek eskaintzea eta garraio publikoarekin konbinatzea izango da etorkizuna. Eta automobilgin-

tzako konpainiak horretarako ari dira prestatzen.

Hemen, Iruñean, Volkswagenek auto elektrikoak egingo dituela esan du.

Hau amaitzen ari delako. Automobilgintzako industriak badaki murriztu egingo dela. Burtsatik aterako direla diote, penalizatuak sentitzen direlako, eta zuzenean inbertitzaile pribatuetara joko dutela. Baina aitortzen ari direna da euren kapital beharrak gutxiago izango direla. Nire blogean idazten duen aditu batek zioen konpainia horien A plana auto elektrikoak masiboki produzitzea dela, eta B plana dela %95 murriztea. Horretara goaz.

Energia krisiaren aurrean garbi utzi duzu ez dagoela irtenbide teknikorik, baina agian soziologikoa bai?

Argi eta garbi. Aldaketa bat egin behar dugu. Badaude ikerketa zientifikoak esaten dutenak egungo bizi maila mantendu dezakegula orain kontsumitzen dugunaren hamarrena kontsumituta. Bizitza eredu desberdin bat behar da, baina elikadura, hezkuntza, osasuna eta laneko kalitate berarekin edo hobearekin. Eta planeta osoan. Baina orduan ezin izango dugu hazkundean oinarrituriko sistema ekonomikoarekin jarraitu, eta hori da arazo guztien oinarrian dagoena. Ingurumen arazo guztiak ere hortik datoz. Teknikoki badakigu zer egin beharko genukeen egiaz inporta zaiguna mantentzeko. Ez dakiguna da teknikoki zer egin hazkunde infinituan oinarrituriko sistema kapitalista hau mantentzeko. ●



“Euskarazko streaming plataforma bat behar dugu”

Ikus-entzunezkoetan euskarak duen presentziaz eta sarean euskarazko edukia sortzeko beharraz mintzatu dira Iruñean. EITBk Primeran plataforma proposatu du hutsa betetzeko. Plataformako eduki guztia euskaraz azpidatzita egonen da, eta parte bat bikoiztuta. Eragile batzuk temati agertu dira proposamenaren aurrean.

 OLAIA L. GARAIALDE

Zeintzuk dira euskararen egoera eta erronkak ikus-entzunezkoetan? Nolakoa da eskaintza? Nolakoa behar luke? Zer ekarriko lioke Euskal Herriari euskarazko streaming plataforma batek? Galdera horiei eta beste askori erantzuten saiatu dira euskalgintzako zenbait eragile eta hedabideetako kide Iruñeko Kondestablearen Jauregian, joan den maiatzaren 4an. Euskaltzaindiak eta Iruñeko Komunikabideak Fundazioak antolatutako jardunaldien xedea da gazteak euskarara hurbiltzeko bidez hausnartzea.

Lehenik, Miren Mindegia kazetariak gidatuta, Alex Aginagalde Pantailak Euskaraz egitasmoko kideak eta Urtzi Urkizu *Berriako* kazetariak hartu zuten hitza. Euskarazko ikus-entzunezkoen egungo egoera eta erronkak aztertu zituzten, eta Aginagaldek nabarmendu zuen “izugarritzko” iraultza eman dela pantailetan, eta ondorioz, euskaraz edukia kontsumitzeko moduak aldatu direla. “Egunero batez beste hamalau ordu pasatzen dituzte gazteek pantaila aurrean: zazpi ordu interneten, bi ordu eta erdi sare sozialetan, hiru ordu eta erdi telebistan eta ordu bat bideojokoetan”, azpimarratu zuen. Kezkaz adierazi zuen gizartea pantailei begira bizi delako: “Zoritxarrez, edukiaren gehiengoa euskara ez den beste hizkuntzetan dago”.

Beste datu bat ere nabarmendu zuen: 1990. urtean, EAEko haurren %78k ikusten zituen marrazki bizidunak euskaraz; gaur egun, aldiz, %0,2ak. “Kontuan hartu behar dugu gaur egun kate pila bat daudela, baina hala ere, adierazgarria da”, esan zuen. Gaineratu zuen, Euskal Herriko zinemetan urtean eskaintzen diren filmen %1 baino ez dela euskaraz, eta streaming plataformetako euskarazko eskaintza ez dela %0,1era iristen. “Euskarazko streaming plataforma bat behar dugu”, esan zuen Aginagaldek.

Bat egin zuen horrekin Urkizuk, eta “denetarik” eta ahalik eta eskaintzarik “zabalena” izan beharko lukeela adierazi zuen: “Sortzaile txikientzako erreferentziazkoa izan behar du, euskaldunek beraien dela senti dezaten”.

EUSKARAZKO STREAMING-A ERDIGUNEAN

Beste hausnarketa bati heldu zioten Unai Iparragirre EITBko zuzendariak, Xabier Alkiza Bieuseko bikoiztaileak, Gaizka Aranguren Napar elkarteko lehendakariak, Eki Pagoaga Kanaldudeko zuzendaritza taldeko kideak eta Iban Arantzabal Tokikomeko presidentek. “Zer ekarriko liguke euskarazko streaming plataforma batek?”, galderari erantzuten saiatu ziren, Miren Mindegia gidatuta.

EITBren Primeran plataformaren aurkezpen bideoa erakusteko probes-

tu zuen lehenengo tarte Iparragirrek. “Ikus-entzunezko edukirik ez duen herri batek ez dauka kontakizunik”, dio proiektuaren leloak. Bat egin zuten ideia horrekin besteek.

“Euskal Herriko kontakizunaren atea izan behar du Primeranek, eta horretarako sarea behar dugu. Horregatik, Tokikomekin elkarlanean egin dugu bidea”, azaldu zuen Iparragirrek. Horrez gain, beste bidelagun batzuk izan dituzte, eta Iparragirreraren arabera “onurragarria” da plataformarentzat, bidelagunentzat eta kontsumitzaileentzat, edukia “aberrastan” duelako. Aurrera begira ere, beste sare batzuk sortu nahi dituzte: “Bidelagunen bigarren txanda egingo dugu, eta horien artean Kanaldude dago”. Aliantzez gain, kontsumitzaileen iritzia jakin nahi dutela adierazi zuen, batez ere gazteena.

Eduki guztiak jatorrizko hizkuntzan jarriko dituzte, euskarazko azpidatziekin, eta horietako batzuk bikoiztu egingo dituzte. Horrez gain, Euskal Herrian zein Euskal Herrikan kanpo ikusteko aukera egonen da. “Badakigu nola bizi diren kanpoan dauden euskaldunak, eta beraientzat ere izatea nahi dugu”, esan zuen Iparragirrek.

Aranguren azpimarratu zuen euskaldunentzat eta euskararentzat tresna “eraginkorra” iruditzen zaiola, erreferentziazko plataforma bat behar delako,



eta Primeranek hutsune hori bete dezakeelako: "Sarbidet bat izan behar du, euskal edukirako leiho bat". Hala ere, pixka bat temati agertu zen: "Mesedez ez dezala Euskal Herriko ikuspegia galdu, batzuetan galtzen duzuelako".

Alkizak ere interesa adierazi zuen, eta "eredu" izan daitekeela esan zuen, baina zalantzati agertu zen: "Beldur naiz; espero dut beste plataformetan eskaintzen duten eduki bera ez izatea".

Edukiaren duintasuna ere izan zuten hizpide, eta kalitateak duen garrantzia azpimarratu zuten. Arantzabalek esan zuen zabalkundean ere indarra jarri behar dela: "Edukia egiten onak izan gara, baina zabaltzen ez horrenbeste".

Plataforma anitza izan beharko lukeela nabarmendu zuten denek, eta Pagoak gehitu zuen "pluralagoa" izan beharko lukeela: "Euskara batuaz gain, beste eus-

kalkiek lekuren bat aurkitu beharko lukete; hori da Euskal Herriaren aberastasuna". Horrez gain, edukia jasotzeko eta zabaltzeko zailtasunak dituztela azaldu zuen: "Mugak oztopo handiak jartzen dizkigu".

EITB-REN KONPROMISOA ZALANTZAN

Eztabaidarako tartea ere egon zen jardunaldietan, eta desadostasuna sortu zen entzule baten eta Iparragirren artean. Entzuleak kezka agertu zuen EITBk euskararekiko duen konpromisoarekin. "Azken hamar urteetan EITBn eman diren nazioarteko pelikulak espainolez izan dira; horrek ere eragina izango du Primeranen?", galdetu zuen.

"Ez dakit lehen zer egiten zen euskal telebistan, nik bi urte daramatzadalako, baina azken urteetan ikusi duguna da

filmak telebista publikora iristen direnerako dagoeneko denek ikusi dituztela gaztelaraz. Egin ditugun esperimentuengatik uste dugu hori ez dela diru publikoa erabiltzeko modurik onena", erantzun zuen EITBko zuzendariak. Gaineratu zuen "eraginkorra" euskarazko produkzioa ekoiztea dela: "Euskarazko sektoreari bultzada ematen dio, eta audientziak esaten digu hori kontsumitu nahi duela jendeak". Horren ostean, eztabaida moztu, eta beste galderei eman zieten pasoa.

Ostean, sareko euskara sortzaileekin aliantzarik egiteko asmorik ote duten galdetu zieten, eta Arantzabalek esan zuen aztertu beharreko zerbait dela: "Egia da gazteek denbora asko pasatzen dutela kanal horietan, eta interesgarria izango litzateke bide horretatik erakartzea". Horretan geratu zen eztabaida. ●

Fraisoro
eskola



Aurrematrikulazioa: **Maiatzak 8-26**

LANBIDE-HEZIKETA ZIKLOAK

Oinarritzko maila: Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak **BERRIA**

Erdi maila:

Lorezaintza eta loregintza
Nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpena

Elikagaien eraldaketa **BERRIA**

Goi maila: Basoa eta natura ingurunearen kudeaketa

Fp
EUSKARA
LANBIDE HEZIKETA

Zizurkil, Gipuzkoa

943 692 162

www.fraisoroeskola.eus

Joxerra Olano

"Ofizialtasuna ezinbestekoa da euskaldunok Nafarroan jasaten dugun bazterketa gainditzeko"

Euskararen ofizialtasunaren aldeko kanpaina egiten ari dira Nafarroan. Joxerra Olano euskara irakaslea da, eta IKA euskaltegi sarearen ordezkaria Euskararen Nafar Kontseiluan.

 XABIER LETONA

Zergatik orain kanpaina hau?

Ofizialtasunaren gaia mahaiaren gainean jarri behar delako. Azken zortzi urte hauetan agerian gelditu da Euskararen Legea zenbatetan den muga hainbat erabaki hartzerako garaian. Eskubidea dugulako geure herrian zerbitzu guztiak geure hizkuntzan jasotzeko. Legea 1986an onartu zenean, legelariaren asmoa zen egoera soziolinguistikoa aldatu ahala, legea ere errealitate horretara egokitzea. Ofizialtasuna ezinbestekoa da euskaldunok jasaten dugun bazterketa gainditzeko.

Administrazioak berdin jokatu beharko luke Elizondon edo Tuteran?

Administrazioak bermatu beharko luke bere zerbitzuak euskaraz jasotzea lurralde osoan. Baina badakigu hori prozesu bat dela, pixkanaka gauzatzen dena. Ofizialtasunarekin, bide hori egiteko aukera izango genuke. Euskal Autonomia Erkidegoan badugu egoera horren ispilu bat. 1982an Arabako Errioxan euskarak zuen egoera soziolinguistikoa gaur egun Erriberan da-goena baino askoz okerragoa zen, eta egin zen bide hori.

Zein esperantza duzue? Orain arte ez da gehiengo parlamentariorik egon hori aurrera ateratzeko. Eta epe laburrean ere ez da ikusten.

Aldaketa batzuk izaten ari dira, eta adibidez, Nafarroa Zurekin koalizioa ofizialtasunaren alde agertu da. Aipatzen da legebiltzarraren gehiengoa behar dela ofizialtasuna aurrera ateratzeko, baina guk egin ditugun kontsulten arabera, Euskararen Legean oinarrituta, gobernauk



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

berak dekretu bidez jo lezake euskara ofizial gisa Nafarroako eremu osoan. Horrek ez luke legearen berme juridikorik, baina tira, bide bat da.

Ofizialtasunaren eskaeran nekea ere sumatzen da euskalgintzako sektore batzuetan. Pareta baten kontra indarra xahutzeak ez duela merezi irizten dio hainbatek, gutxienez beste indar korrelazio bat izan arte.

Argudio bitxia iruditzen zait, beste hainbat borrokatan erabili izan bagenu ea nola geundekeen orain. Nekagarria dela? Jakina, baina benetan etsigarria izan da azken zortzi urteetan Nafarroako Gobernuak euskararekiko egin duen politika, edo alderdi politikoen lehentasunetan euskara non dagoen ikustea.

Badira diskurtso etsigarriak euskalgintzaren eremuan ere. Esate baterako, adostasunaren diskurtso hori... adostasuna lortu behar dugu euskara desagertuko balitz poztuko liratekeen horiekin? Iruditzen zait menderatzailearekin adeitasunez jokatzek ez duela inoiz jarrera adaketak ekarri.

Ofizialtasunak euskaldun ez diren herritarrei beldurra ematen diela argudiatzen dute aurkako jarreretatik –adibidez UPNk eta PSNk–, eta batez ere lana lortzeari dagokionez.

Funtzionario izateko balizko eskubidea-rekin lotzen dute hori. Administrazioako lanposturen bati euskara eskakizuna jartzen bazaio, herritarren berdintasuna urratzen dela diote. Beldur horiek, gainera, modu arduragabea bideratu dituzte. Niri burura etortzen zait esaten denean "etorkinak hona etorri dira guri lana kentzera". Jakina, gezurra da. Administrazioa zerbitzu egokia emateko dago, lanpostuen ezaugarriak erabakitzen ditu, eta horien artean hizkuntza beste bat gehiago da, eta horregatik ez da inor baztertzen.

Aurkako argudio gisa aipatzen dute, halaber, egoera soziolinguistikoarena, baina bistan da, egoera soziolinguistikoak aldatu egiten dira, bestela ez ginateke egongo gauden egoeran.

Eta hauteskunde ondorenean zer?

Eltzea sutan probatzen da. Ikusiko dugu zenbaterainoko garrantzia ematen dioten ofizialtasunaren aldeko alderdiek gaiari edozein gobernu babesteko garaian. ●

HORMA-BELARRA ARDOZALEEK DAKITENA



GARBIÑE LARREA
@GAR2LARREA

Demagun Rikardo duela izena izenburu hau iradoki didanak. Benetako izenik ezin eman bestela emazteak aurrena eta medikuak gero errieta egingo omen diote. Tranpatan ibili beharra daukagu, bestela egun gorri. Berak esan zidan *Sendabelarrek dakitena* liburua ateratakoan: “Poz eman didazu pareta-belarra hain txukun esplikatuta. Zuk badakizu nik sendabelar horri esker segitzen dudala txikitero grabea izaten, ardozaleok dakiguna ere hor dago, e?”. Berak ardoa maite du eta urteak joan eta urteak etorri pareta-belarrak lagundu dio maitasun zail horri leial izaten.

Rikardo erabat hiritarra da, Euskal Herriko hiriburu batekoa, oraindik ere goizero erronda bat eta arratsaldero beste bat egiten duten txikitero kua-drilla batekoa. Ardoa, kafea eta pareta-belarra omen dira edaten dituen likido bakarrak. Gizon hau gustatzen zait topiko asko apurtzen dituelako. Hau da, sendabelarren jakintza baserriari lotua dagoela, amak alabari emandako jakintza dela, sendabelar asko erabili behar direla osasuntsu egoteko, atzerititik ekarritako depuratzailerik hepatikoak indartsuagoak direla, eta abar. Norberak berarentzat adina botika egin ahal izatea izan da guta-



Pareta-belarra, *parietaria judaica*. / DANI BLANCO

ko askoren leloa urtetan eta bera eredu ona da horretan.

Euskal Herrian badira hainbat sendabelar ia debozizioak, hori ikusten dugu haiei zaien miresmenari erreparatuta, eta bat horma-belarra dugu. Flabonoide kopuru handia duenez, zelulen zahartzea atzeratzen du eta antioxidatzailea da. Taninoak, muzilagoak, nitrato potasikoa, azufredun osagaiak, kaltzio oxalatoa eta azidoak ditu bere hosto eta txortenetan. Osagai anitzak eta asko, kopuru handian gainera. Asunaren familia botaniko bereko landare belarkara hau diuretiko indartsua dugu, baina baita gibela eta behazuna garbitzeko sendabelar egokia ere.

Eta onena, edonon paretak horma-belarrez josita ditugula. Bere polena alergenikoa dela argudiatuz udalak fumigatu zaleak dira (maiz glifosatoz), baina jai daukate, ikusitakoa ikusita espezie honek botikarekiko erresistentzia garatu duela baitirudi. Herri zein hiri-guneetatik kanpo dauden murruetan, mendi aldeko borda eta ermiten hormen kontra hazten dena bildu izan da.

Udaberri eta udazkenean bederatziturrena egitea izan da ohitura. Hau da, hosto, txorten zein lore/haziak ondo lehortu eta infusioa egitea, goizero baraurik bederatziz egunean segidan hartzeko. Urtaroek irauten duten hiru hilabeteetan. Hori bai, gozagarririk gabe, ezta ezirik ere. Botika zein gaitz askorekin ez da bateragarria, informatu erabili aurretik. ●

EUSKAL HERRIKO AGENDA

EKAINAK 1 / BEASAIN

Garbiñe Larreak sei sendabelar aurkeztuko ditu eta “Milagritos” ukenduaz arituko da. **19:00etan Igartza Jauregian.**

EKAINAK 3 / AZKOITIA

Garbiñe Larrearen eskutik izei ukendu baltsamikoaren saio teoriko praktikoa. **11:00etan Bizilore eskola aktiboan.**

EKAINAK 15 / LEITZA

Sendabelarrak eta emakumearen zikloak saio praktikoa
Garbiñe Larrearekin. **Izena emateko: berdintasuna@lagagizartezerbitzua.org**

Garbiñe Larrearen edo Jakoba Errekondoren hitzaldia antolatzeko:

bizibaratzea@bizibaratzea.eus



MAIHALTZA, MAIATZEKO HALTZA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Maiatzeko ilgora da haltza mozteko garaia. Haltza (*Alnus glutinosa*) zuhaitz ugaria da isuri atlantikoan, batik bat ura den inguruetan. Erreka, ibai eta errio bazter, ur ustel, padura, izaga, istil, ihidi, parta, zidoi, zingiradi, zi-porro, buztin-lur, bartale, lintzura, hika, kintara, trokatze, lintsa, ixkernu, laku, txongolo, urmael, uzulotzar, aintzira, osin, sistuki, potingo, leputza, argune, urasetutako sail, inta, ihiztoki edo ihiztoka, haltza ez da urruti ibiliko. Non urtza, han haltza. Haltzadiak eta haltzagak ekosistema aberatsak izan ohi dira. Uraren inguruan bizitza pilatu egiten: txori eta hegazti zarbaje trinkoan; onddo eta perretxiko eta belar eta zuhaixka itzalzale lur hezean; amuarra, zarbo eta ezkaile dabilen urak lurra eraman eta urpean bistaratutako sustraien babesean.

Orain, maiatzean, izerdi berria puripurian dabilenean, belar, zuhaixka eta zuhaitzetan behera eta gora, ilunpe ederra dago haltzuetan. Begiak eta ikusmena egokitutakoan aukeratu behar haltz zuzenena, luzeena edo dena delakoa. Zuzen-zuzena da ia beti haltzaren enborra, eta bere eiteak koniferoen konoa dakar gogora. Izerdi patsetan bota haltza eta, ahalik eta zuzenen eusteko, lehortu artean ez kopatzeko edo bihurritzeko, zuritu eta lotuta jartzen da lehortzen.

Zuzen-zuzenari eustea komeni, gero



ANDREAS ROCKSTEIN CC-BY-SA-2.0

gozo-gozo eta malgu okertzeko, ez krakateko eta ez printzetan ez pitzatzeko. Horixe helburua: zuzen atxiki gero nahi dugun eran okertzeko. Hori da ilgoran eraitsitako haltzaren zuraren izaera miragarria. Urte garai honetako ilgoran, izerdia bor-bor, tutuak zabal-zabal eginda ditu haltzegurrak, batez ere gizenaren aiekak, baina baita giharrarenak ere. Moztutakoan eta lehortzen denean izerdi hori galduko du eta tutu zabalak geratuko dira. Hori litzateke haltzura- ren malgutasunaren erantzulea.

Malgutasun hori ederki asko erabiltzen dakigu. Haltzura lanean edo indarrean jartzen denean okertu eta gero bere zuzenera etortzen da, baina baita oker horren inguruan geratzen ere. Okertu behar handirik gabeko lanetarako ere erabili izan da: aulki hanka, eskalapoin eta abar. Baina ikaragarriko okertze eta kakotzeak jasango dituzten piezek eman diote sona haltzari. Gai-nagak edo gurtagak gurdia kargari (belar ondu, inaurkin, ote, arta zuztar...) gainetik, ezpatatik ezpatara botata, tiraka okertuz eusten dio. Pieza luze hori beti haltzazkoa ezagutu izan dut. Lukainka edo artaburu, zintzilik airean eutsiko dituen alzurruna edo altzaga ere okertu bai baina apurtu ez. Tolarean ere hodiak, patsolak eta beste piezak egiteko haltza erabili izan da, indar galantak eraman eta bueltan berera etortzen dena. Itsasontzietan haga, bela-haga, berga eta bela-zurruna deitzen diren mastak egiteko, beti haltza. Baita anguletan erabiltzen den bahetzarraren bahe-kirtena ere.

Lan gogorretarako zur malgua. Lanean ari den artean zailduta dago, baina, hori bai, lanaren tinkotasuna ahaztu eta bazterrean utzita makaldutako haltza aitaren batean joko du pipiak. Izan ere, izerdi beltzetan zela bota eta lehortu bai baina maiatzeko izerdi gozoaren azukrea han geratu zen, pipiaren gutizia. ●

ekologikoa, ingurumena hobetzeko!



Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoen Kontseilua
Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi

Babesleak:



BIONEKAZARITZA

30 URTE ARABAN AGROEKOLOGIAREN BIDEAN



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

1 993an sortu zuen Araban Bionekazaritza elkarte ekoizle talde txiki batek, eta 30. urteurren ospakizunetan dabiltza aurten. “Momentu hartan, ez zegoen gaurko diskurtso ekologistarik eta agroekologiaren aldekorik, edo, behintzat, gizartearen zati oso txiki batek soilik ezagutzen zuen”, azaldu du Lainoa Zarauz elkarteko kideak. Hutsune hori betetzeko eta diskurtso eta praktika agroekologikoetan sakontzeko asmoz abiatu zuten proiektua, eta orduko testuingurua asko aldatu bada ere, helburu berarekin jarraitzen dute lanean. Maiatzaren 27an urteurrena ospatzeko festa antolatu dute Korresen.

ALDERDI SOZIAL ETA EKONOMIKOARI ERREPARATUZ

Ekoizpen ekologikoa bultzatzea izan da elkartearen 30 urteotako helburuetako bat, baina ekoizpen teknikari ez ezezirik, bestelako alorrean ere begiratu: base-rrien autonomiari, giza neurriko proiektuak izateari, erregai fosilekiko eta kanpoko baliabideekiko independenteak izateari... “Elikadura burujabetza sustatzea da bidea, eta horretarako base-ritarren eguneroko lana erdigunean jartzea ezinbestekoa da”. Zigilu ekologikotik harago begiratzeak desberdintzen



du elkarte beste zenbait proiektutatik.

Urteotako ibilbidearen balorazioa egiterakoan, egoerak nolabait hobera egin duela nabarmendu du Zarauzek, baina bilakaeran zenbait arrisku ere ikusten ditu: “Gizartea sentsibilizatuago dago eta gehiago jotzen du produktu ekologikoetara, baina, era berean, uste dut Europako legeek ekologikoko azalera handitzea eta pestiziden erabilera gutxitzea bultzatu arren, aipatzen genituen alderdi sozial eta politiko horiek ez dituztela kontuan hartzen”. Kontzientzia geroz eta handiagoa dago eta ekoizpen ekologikoko zenbakiak pixkanaka handitzen doaz, baina agroekologiak erreparatzen dien beste esparru horietan asko dago egiteko oraindik. “Izan ere, geroz eta errelebo gutxiago dago, oso zaila da lurrerako sarbidea izatea, eraldatzeko eta merkaturatzeko baliabide txikiak desagertu egin dira...”.

FESTA ARABAKO MENDIALDEAN

30 urte ez dira egunero betetzen, eta urteurrena behar bezala ospatzeko festa eguna antolatu dute maiatzaren 27an. Korres herrian izanen da, Arabako mendialdean. “Deszentralizatu egin nahi genuen festa, horrelako jaiak hiritik landa eremura eramatea garrantzitsua da”. Goizean “ahaztutako landareen” inguruko tailerra eta ornitologiarako hastapenentarako tailerra egingen dituzte, eta baita landa eremuko queer bizipenak jasotzeko hitzaldia ere.

Ondoren, bermuta, bazkaria, txikienezko ginkana, festa... “Beti gaude hitzaldi, tailer eta ikastaroetan sartuta, eta egunak gozamenerako alde hori edukitzea ere nahi genuen”, dio Zarauzek. Han izanen dira egun elkarteko bazkide diren 40 kontsumitzaileak eta 40 bat proiektutako kideak, baina gonbidapena herritar guztiei zabaldu diete elkartetik. ●



943 64 17 10
www.endanea.com

Gozatu baratzea

Zatuz eta aurkitu zure balkoia, terraza edo baratzerako landare eta produktu guztiak

Online denda



SEÑORA SARIKETA

Señorek ere badute podcasta

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia ARGIAko BTN saioaren bidez jarraitu zuenetakoa zara? Egile eta sortzaile berberen eskutik datorkigu eskaintza berria: *Señora sariketa*. Argia.eus atarian, hiru ostegunez, Haizea Arana, Oihana Arana, Leire Vargas eta Aner Peritzen ahots-gorputzetatik, bideo-podcast berria izango dugu. Lehen saioa dagoeneko ikusgai.

Emakumezko bertsolariak saretzea eta azpiratutako genero identitateak bistaratzeko helburu duen sariketa da, herri antolakuntzatik sortua orain hiru urte. Bai bertsolari munduaren barruko sektore feministak, bai kanpoko sektore bertsozale feministak, biek ala biek bultzatuta. Bertsolaritza ere ez baita bekatutik libre, emakumeentzako eta sexu-genero disidenteentzako espazio seguru eta erosoak topatzeko helburuarekin sortua izan zen, batez ere txapelketek duten pisuari begira, plaza konbentzionalean bazterrean geratzen direnei erdigunean lekua egin asmoz.

Transfeminismotik antolatzen, "zailantzetatik abiatzen den sariketa da, baina justu kontraesan horiek baliatu



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

nahi ditugu bidea egiteko" dio Leire Vargasek, ARGIAko bideo-podcasteko egile eta Señora sariketako antolakuntza lanetan ari denak. "Ez da sariketa zurruna, aldaketa, garapena ditu oinarri, zalantza eta kontraesan horietan sakonduz baitoa sariketa bera forma hartzen", jarraitu du. Epaileek, esaterako, teknikari dagokion balorazio ohikoaz gain, diskurtsoari ere ematen diote garrantzia, besteak beste, eta aurrean epailetza kualitatibo eta asanblearioarekin egingo dute saiakera lehenengoz.

III. SEÑORA SARIKETA

Hamalau bertsolari ariko dira hirugarren edizio honetan kantuan. Bilbon

eman zitzaion hasiera, maiatzaren 6an, lehen finalaurrekoa jokatzeko. Bigarre-na maiatzaren 13an, Erratzun.

Oñatin, maiatzaren 27an ospatuko den finalera, kanporaketa bakoitzetik hiru bertsolari igarotzen dira: epaileek erabakitako bi, eta hirugarren bat, kantuan aritutako bertsolariek berek bozkatutakoa.

Bideo-podcasteko lau lagunek gertutakoa dute Señora sariketa. Bertso Txapelketa Nagusia egonkortutako instituzioa den bezala, haren pare jarri nahi dute Señora sariketa eta Argia.eus-en formatu berdineko jarraipen-saio bat egitea horretarako aukera egokia ikusi dute. ●




KONTSEILUA

Ebazpen euskarafoboen aurkako mobilizazioa

Euskaalgintzaren Kontseiluak deituta, ehundik gora norbanako eta gizarte eragile bildu dira EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren Bilboko egoitzaren aurrean maiatzaren 10ean, azken hilabeteetan epaitegietatik euskararen aurka ateratzen ari diren ebazpen sortaren aurrean beren kezka eta haserre erakusteko. ARGIAko ordezkariak ere bertan izan dira. "Gero eta argiago geratzen ari da oldarraldi judizial bat dela", esan du Idurre Eskisabel Kontseiluko idazkari nagusiak. Horren aurrean, mobilizazio soziala ezinbestekoa dela iritzita, azaroaren 4an manifestaziora deitu dute Bilbon, eta ARGIAk bat egin du deialdiarekin.

Telefono Gorria eta txakur nagia



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Washington-Mosku, 1963ko ekainaren 20a. Gerra Hotzeko bi potentzia nagusien arteko komunikazio linea zuzena, Telefono Gorria, jarri zuten martxan. Aurreko urteko urrian, Kubako misilen krisiak agerian utzi zuen Sobietar Batasunaren eta AEBen artean komunikatzeko bide zuzenagoa eta seguruagoa behar zela; orduan, Nikita Khrustxoven mezuak hamabi ordu behar izan zituen Etxe Zurira dekodifikatuta iristeko, eta tarte luze horretan krisia gatazka larriago bat pizteko zorian egon zen.

Kazetariak jarri zioten Telefono Gorria izena, baina ez zen sekula telefono bat izan. Komunikazio telefonikoa arriskutsua zela erabaki zuten. Idatzizko komunikazioak hotzago jokatzeak aukera emango zuen, hausnarketarako eta beroaldiak eta inprobisazioak saihesteko tartea. Gainera bakoitzak bere hizkuntzan idaztea hobetsi zuten eta, gero, mezuak ondo itzuliko zituzten, gaizki ulertuak saihesteko. Horregatik teletipoa erabiltzea erabaki zuten.

Linea hura ez zen erabat zuzena: mezuak Washingtonetik abiatu eta Londres, Kopenhage, Stockholm eta Helsinki pasatzen ziren Moskura iritsi baino lehen. Baina ordurarte bideekin alderatuta, "geldialdi" kopurua asko murriztu zen eta, beraz, mezua beste norbaitek atzemateko arriskua ere bai. Telefono Gorriaren bidezko mezuak ere zifratuta bidaltzen zituzten, baina au-



Jimmy Carter museoa dagoen ezkerreko telefono gorria ez zuten sekula erabili, objektu sinboliko hutsa da. Aldiz, eskuineko teletipoa 1967ko "telefono gorria" da.



JIMMY CARTER MUSEUM/ LYNDON JOHNSON MUSEUM

rreko kodifikazio konplexuak ez ziren beharrezkoak.

1971n satelite bidez komunikatzen hasi ziren, 1985an faxa erabiltzen hasi ziren eta egun emaila da Telefono Gorria; baina azken urtetan, indarrean egon arren, ez omen dute erabili, esaterako, Errusiak Ukraina erasotu zuenean.

Lehenengoz Kennedyren hilketaren berri emateko erabili zuten Telefono Gorria, 1963ko azaroan bertan. Baina lehenago proba bat ere egin zuten. Hauxe izan zen Washingtonek Moskura bidalitako lehen mezua: *"The quick brown fox jumped over the lazy dog's back 1234567890"*. Alegia, "Azeri erre azkarak txakur nagia bizkarrera jauzi

egin zuen", Hainbatek esaldiaren atzean mezu sekretu enigmatikoa ikusi nahi izan dute, baina azalpena askoz sinpleagoa da. Linea probatzen ari ziren teknikariek teletipoaren tekla guztiak ondo zebiltzala egiaztatu nahi zuten. Besterik gabe, alfabetoa ordenan jar zezaketen, amaieran zenbakiak egin bezala, baina, jostari zeuden nonbait, eta alfabetoko letra guztiak jasoko zituen esaldi inozo bat asmatzea bururatu zitzaion.

Mundua dardarka zegoen, gerra nuklearraren beldur, eta Telefono Gorriaren arduradunek umore apur bat jartzea erabaki zuten. Sobietarrek Moskuko arratseko zeruaren deskribapen poetiko batekin erantzun zuten. ●



EGIPTOKO TURISMO MINISTERIOA

Buda Egipton

Egiptoko Berenize aztarnategian Budaren estatua bat aurkitu berri dute, K.a. II. mendekoa. Berenize Mediterraneo portu nagusietakoa zen orduan, eta erromatarren menpe zegoen. Estatua egiteko erabili zuten harria Anatoliatik dator, eta Anatolian edo Berenizen bertan zizelkatu zutela uste dute adi-

tuek. Horrek esan nahi du erromatar portuan ziurrenik Asiako merkatariek budistek gurtzarako tokiren bat izango zutela, eta, halaber, adierazten du, erromatarren merkataritza harremanak Mediterraneoaz haratago zabaltzen zirela, Indiara eta Asiako beste herrialde batzuetara. ●

J MARTINA ETA MERINA GRIS

Molde eta formatu berriak garaiko musika eszenan

Aldaketa gertatzen ari da Euskal Herriko musikaren eszenan. Sortzen ari diren hainbat taldek haize freskoa ekarri dute, molde, forma eta diskurtso berriei gaur egungo testuingurura egokitutako musikarekin. J Martina eta Merina Gris dira horren adibide. Haiekin egon da ARGIA, elkarrekin egin duten biraren bezperatan.

 **IRATI IRAZUSTA JAUREGI**  **DANI BLANCO**

2017an hasi ziren Julen eta Paskal buruan zeuzkaten ideiei soinua jartzzen. Sarari laguntza eskatu zioten abeslaria aurkitzeko, eta espero ez zuten zerbaite jaso zuten bueltan: berak baino hobeto ez zuela inork egingo. Hala sortu zuten Merina Gris taldea. Hiru donostiarrek, erreferente antzerakoak izateaz harago, musika egiteko moduan konektatu zuten, baita plazaratzeko orduan ere. 2020an kaleratu zuten *Besteek zer* lehenengo abestia. Ezkutatu egiten dute identitatea: oholtzara aurpegia estalita igotzen dira, eta abizenik ez dute esaten.

Garai bertsuan aurkeztu zuen bere burua J Martina taldeak, sareetan. Saltsatzen 2019 erdialdean hasi ondoren, 2020ko apirilean argitaratu zuten *Mundu zahar* lana Ane eta Kattalin Barcena ahizpa larrabetzuarrek eta Javi Jorajuria barañaindarrak.

Bi taldeak paraleloan egiten ari dira ibilbideak, eta gurutzatu ere egin dira. Birako hiru kontzertu eskaini dituzte elkarrekin. Gasteizen eta Iruñean jo dute apirilean, eta maiatzaren 19an Bilboko Kafe Antzokian. J Martina banda eta guzti igo da oholtzara, J Martina 2.0 izenarekin, eta Silitia taldearekin ere egin du birako kontzertu bat, Donostian.

Zergatik zuek biak elkarrekin?

Kattalin Barcena (J Martina): Espazio eta musikaren aspektu asko elkarbanatzen ditugu. Guretzat aberasgarria da, musika elektronikoa egiten dugun heinean, Euskal Herrian erreferentziazko taldeak izatea. Aberasgarria da jende honekin espazioak partekatzea, asko ikasten dugulako beraiekin, eta gure proiektua osatzen duelako.

Julen (Merina Gris): Musika sentitzeko

eta egiteko duten erarekin asko konektatzen dugu.

Paskal (Merina Gris): Kode musikalak eta gureak antzekoak dira eta publikoa ere antzekoa da askotan.

Belaunaldi berri baten parte zarete?

Javi Jorajuria (J Martina): Formalki, bai. Gertatu diren aldaketen emaitza dira orain sortzen ari diren talde asko; tartean gu, Merina Gris, Silitia eta beste hainbeste.

K. Barcena: Euskal Rock Erradikalaren arrastoak bukatuta daudela ikusita, formalki musika egiteko beste modu bat sortu da. Baina gure asmoa ez da formalki beste musika bat egitea bakarrik. Euskal Rock Erradikalaren barruan musika politikoa egin duten talde erreferente asko egon dira, eta guri interesatzen zaiguna da gaur egun musika politikoa



Merina Griseko taldekideak, maskarapean
ezkutaturik, haien entsegu lokalean.

egiteko moduak bilatzea, gaur egungo garaietara eta gure belaunaldiaren testuingurura egokituta egongo dena.

Ane Barcena (J Martina): Horrek ez du esan nahi gaur egungo punk-ek ez dietela horri erantzuten. Formalki gu belaunaldi berri baten parte gara egon diren aldaketen ondorioz, teknologiaren aurrerapenez baliatzen garelako musika elektronikoa egiteko. Baina genero musikal guztietan gertatzen dira aldaketak eta denak egokitu daitezke gaur egungo testuingurura.

Sara (Merina Gris): Gaur egungo eszenan jende asko deseroso dago. Lehen oso markatuta zegoen alde batetik rock eta metal eszena, beste aldetik poparena... Orain gauza asko bateratu egin dira. *Pureta* horietatik nola eboluzionatu dugun ikustea ederra da, orain dena askoz errealagoa da.

Paskal: Poparen, elektronikaren, rockaren... paretak puskatu egin dira. Oraingo gazteriarri berdin zaio entzun Toc, Lukiek, Mirua edo Süne, eta lehenengo entzunaldi horri aukera ematea pozgarria da.

Julen: Jende gaztea musika modernoa egiten ari da, bereak dituen alderdiak alde batera utzi gabe. Adibidez, Mirua taldea Euskal Herrian egin ez diren gauzak egiten ari da, baina euskal musika tradizionala ere barnean dute eta ez dute alde batera uzten. Guri ere berdina gertatzen zaigu. Gazteak ginenean musika oso modu anarkikoan kontsumitzen zen. Guk entzun ditugu Piperrak, Skarlariak, Xabier Lete, Blink 182 eta Evanesence. Eta ez gara saiatzen hori dena fusionatzen; gu hori guztia gara.

Sara: Horregatik, asko aldatuko da egin-go duguna, orain ere gauza asko kontsumitzen ditugulako. Nire ustez harri-garria da talde batek denbora guztian estilo bera mantentzea.

Musika egiteko modua aldatu dela diozue. Zer esan nahi duzue?

J. Jorajuria: Momentuan dauden baliabideekin egiten den musikaz ari gara. Lehen gitarra edo anplifikadore batekin egiten zen, hori zelako eskura zegoena. Gaur egun ere erabiltzen ditugu horiek, baina tresna gehiago erabiltzeko aukera dugu, eta beste soinu eta erritmo askotara heldu gaitzke. Forma berri hori ez da reggaetoiia hartu eta kopiatze hutsa, baizik eta saiatzea forma horiek testuinguru honetara moldatzen. Forma propio bat ematen.

Julen: Badu puntu irrazional bat: guztia

"Dena sentiarazi nahi dugu, indiferentzia izan ezik"

Sara (Merina Gris)

"Gure helburua ez da Euskal Herrian euskal merkatu bat sortzea gure produktuak errentagarriak izan daitezen"

Kattalin Barcena (J Martina)

muturreraino eramatea. Bai soinu aldetik, baita lan egiteko garaian ere. Gauzak egiten ditugu horretaz biziko bagina bezala, hori posible ez denean momentuz. Ez dauka inongo zentzurik, zeren guztiok baitaukagu soldatapeko lana eta bizitza soziala, baina argi geneukan gure proiektua muturreraino eraman nahi genuela. Askok sinesten dugu egiten dugun horretan.

Paskal: Musika egiteko modua baka-rrik ez, plazaratzekoa ere aldatu da. Argazkiei, bideoei... ere garrantzia ematen diegu. Ez dugu esaten "ez dago dirurik, ez dago denborarik, beraz, berdin du". Eman diezaigun buelta bat. Merezki du atzeratzea, eta eszena zaintzea?

K. Barcena: Ikusita nola aldatu diren arauak eta jendea kulturalki, guk nahi duguna da musikaren bidez jendearekin konektatzea eta iristea guk esan nahi duguna. Horretarako oso inportantea da

aztertzea zeintzuk diren jendearen sentibiltateak, zer entzuten dugun, zein musika eta doinuak mugitzen gaituzten... Ez hainbeste publikoari gustatzeko, baizik eta testuinguru kulturala kontuan hartuta, ikusteko nola baliatu gaitzkeen eskura dauzkagun tresnez jendeari barruan zerbait mugitzeko.

Estetika asko zaintzen duzue.

Abestiak ere banaka zabaltu ohi dituzue, bakoitza bere bideokliparekin.

A. Barcena: Guretzat oso garrantzitsua da estetika gure musikan eta saiatzen gara irudia lantzen dugun heinean estetika lantzen. Zortea dugu inguruan jendea daukagulako arte diziplina ezberdinetan aritzen dena. Irudian, jantzietan, Sahatsak -Jauregi- azken albumean egin digun arte zuzendaritzan...

Julen: Noizbait pentsatu dugu kanta bat bideoklipik gabe ateratzea, baina kanta bakoitzari buelta asko ematen dizkiogu eta iruditzen zaigu merezi duten leku hori eman behar diegula. Horretara dator singleak ateratzeara, protagonismo hori merezi dute kantuek.

J. Jorajuria: Arte forma ezberdinak ez daude bata bestearengandik banatuta, beti aritu izan dira elkarlanean; musikaren kasuan, arkitekturarekin eta guzti. Gure gaitasunen mugak direla eta, bideo formatua erabiltzen dugu guk. Azken diskoan, Sahatsarekin batera, musika eta eskultura jarri genituen elkarlanean, eta bideo formatuan plazaratu behar izan dugu, adibidez.

Zer lortu nahi duzue musikarekin?

Sara: Dena sentiarazi nahi dugu, indiferentzia izan ezik. Barruak mugitzea bilatzen dugu, eta hori lortzeko jartzen ditugu arima, gorputza eta bakoitzak daukan guztia.

J. Jorajuria: Gure militantziarekin lortu nahi dugun gauza bera, esango nuke. Musika tresna bat gehiago da gure egunerokotasunean militantziarekin lortu nahi dugun hori islatzeko eta aldaketa kultural horretan esku hartzen saiatzeko.

K. Barcena: Normalean bi gauzari abestu nahi izaten diegu. Alde batetik, gure letrak egunerokotasunaren isla izatea nahi dugu, gure bizipen intimoenetik testuinguru orokor bati abestuta, erakusteko zer sentitzen dugun garai haue-tan eta leku honetan bizitzen. Politika-rekin lotuta egoteak ez du esan nahi panfletoak direnik; panfletoak panfle-



J Martina taldeko kideak,
Kattalin Barcena, Ane
Barcena eta Javi Jorajuria,
2019ko argazki batean.

toak dira eta abestiak abestiak. Beste aldetik, antolakuntzari, aldaketari, etorkizunari abesten diogu.

Sara: Gauzak diren bezala azaldu nahi ditugu, eta bizitza gogorra bada, horrela esango dugu.

Nolako harremana dute gaur egungo panoraman musikak eta politikak?

A. Barcena: Nik uste tendentzia argia dagoela musika eta politika arlo independente moduan ikusteko. Ez dago asmorik musika eta testuinguru politikoa uztartzeko, edo indibidualismotik egiten da, bizipen pertsonalen kontaketa hutsa mugatuta. Ez dut esan nahi hori bakarrik existitzen denik, baina tendentzia argia da.

K. Barcena: Oso garai despolitizatuan bizi gara eta hori musikan ere islatzen da, gainontzeko esparru guztietan bezala. Oso interesgarria da oso talde freskoak ari direla sortzen Euskal Herrian, panorama musikala asko aberasten du-

"Musika egitea unibertsalizatzen ari bada ere, ez du esan nahi merkatutik kanpo egiten denik"

Javi Jorajuria (J Martina)

tenak. Guk bultzatu nahi dugu aldaketa hori aspektu formal bat izatetik edukizko aldaketa bat izatera igarotzea. Horretarako, artistek euren burua agente

politiko gisa ikusi behar dute, eragiteko gaitasuna duen subjektu moduan.

Julen: Denak du irakurketa politiko bat. Hutsaren aldarrikapena egiten baduzu etengabe, hori jarrera politiko bat da.

J. Jorajuria: Adibidez, konfinamenduan Zetak taldeak *Zeinen ederra izango den* abestia kaleratzeak eragin politiko handia dauka. Dagoena onartzeko adierazpenak dira, nahiz eta inozenteki egin. Ez da nahikoa esatea "nik musika eta politika bereizi egiten ditut, musika baino ez dut egiten". Ez. Musika politikoa egiten duzu, kontua da nori egiten diozun mesede.

Sara: Sare sozialek ere aldatu dute panorama, musikak musika soil izateari utzi dio. Artistak ezagutzeko tresna bat dira, eta egunerokotasunean sare sozialetan erabiltzen den hizkuntzarekin eta partekatzen duzunarekin zure burua publikoki kokatzen duzu. Askotan musikak ez du behar hitz zehatzik zure pentsaera zein den erakusteko.

Sentitu duzue beharrik sare sozialetan zuen burua lerratzeko?

Paskal: Ez, eta nire ustez talde bati ezin zaio exijitu. Ondo iruditzen zait talde batean partaideak posizio politiko batean errotuta egotea eta esatea, baina exijitzea ez.

Sara: Talde moduan badaukagu zentzu komun bat. Uste dugu gauza batzuk babestu behar ditugula eta beste batzuk ez dutela zentzurik guretzat. Baina hori da muga.

Toki batzuetan jotzea hartu izan duzue lan politikotzat?

K. Barcena: Bai, beti. Guretzat oso garrantzitsua da musikak espazio batean edo bestean publikoarekin sortu dezakeen momentu partekatua, baita musikariok espazio edo ekimen konkretu batzuen alde egin dezakegun apustua ere (gaztetxeak, ekimen politiko edo sozialak, jaiak...). Hor hartzen du zentzua gure musikak, publikoak sentitzen duenean abestia ez dela gurea, kolektiboa baizik. Baina interesgarria da guretzat arrotzagoak diren espazioetan ere ego-

"Gaur egungo multidiziplinartasunaren atzean prekarietatea dago; *Do it yourself*-a oso prekariora izan daiteke"

Julen (Merina Gris)

tea, helburua gure musika jende ezberdinarengana iristea delako.

Orokorrean panorama musikala nola ikusten duzue diruaren merkatuan?

Artista batek bizi behar luke musikatik?

Paskal: Ez dut uste artista batek artista

izate hutsagatik horretatik bizi behar lukeenik, baina norbaitek nahiko balu aukera izan beharko lukeela, bai.

Julen: Iturgin batekin ez dugu zalan-tzarik egiten. Iturgin bat ez da joaten besteen etxeetara gauzak doan konpontzera, horri lehia desleiala deitzen diogu kapitalismoan. Egia da hori ezin dugula %100ean aplikatu arte diziplinetan. Beste ogibideetan produktiboa izan behar da, artearekin produktiboa izatea arriskutsua izan daiteke. Galdu daiteke faktore bat beste ogibideetatik desberdintzen duena: egia, zintzotasuna. Nire ustez helburua ez litzateke izan behar etekin ekonomikoa, baizik eta zure lana plazaratzea.

Sara: Aukera izan behar luke nahi eta ahal duenarentzat. Ez dugu idealizatu behar, geroz eta gehiago ikusten da artetik bizi diren asko lana uzten ari direla. Badirudi musikatik bizitzea sekulako pagotxa dela, baina atzean sakrifizio handia dago. Askotan alboratu egin behar izaten dira bizitza soziala eta denbora libre, eta antsietate handia sufritu ohi dute artistek.



J Martinak Donostiako Dabadaban emandako kontzertuan.

JOKIN FERNANDEZ



K. Barcena: Askotan salatzen da artista askok, adibidez, euskaraz abesten dugunok, ez ditugula baldintzak betetzen merkatuan beste produktu batzuk funtzionatzeko. Baina gure helburua ez da Euskal Herrian euskal merkatu bat sortzea gure produktuak errentagarriak izan daitezen. Gure helburua da bai Euskal Herrian, bai beste leku batzuetan, beste gizarte mota bat sortzea merkatuaren logikak aginduko ez duena eta, beraz, arte ekoizpena modu aske batean egin ahal izango dena.

Gauza bat da momentuan musikatik diru bat irabaztea zure arte ekoizpena baldintza hobeetan egiteko, eta beste bat da helburua musikatik bizitzea izatea. Musikatik bizita zure arte ekoizpena merkatuaren denboren, eskariaren, zaletasunen... menpe egongo da. Helburua musikatik bizitzea bada, hein batean baldintza horiek onartu egin behar dituzu. Gure helburua ez da hori.

Gaur egun diskoek indarra galdu dute, plataformetako musika da nagusi, teoriar errazagoa da zabaltzea... Musika egitea unibertsalizatzen ari da?

J. Jorajuria: Musika egiteko aukera handiagoa dago, baina asko zabaltzeko aukera ez dauka edonork. Eta musika egitea unibertsalizatzen ari bada ere, ez du esan nahi merkatutik kanpo egiten denik.

K. Barcena: Lehen diskografiak ziren irabaziak ateratzen zituztenak diskotik. Orain ez dizkiozu diskografia horri 2.000 euro ordaindu behar eta grabatu dezakezu zure etxean. Baina ordaindu behar diozu banatzaile bati zure musika plataformetara igotzeko, jendeak playlistetan sartzeko ere banatzaileak ordaintzen ditu...

Julen: Eta gero igotzen duzu musika erreprodukzio bakoitzagatik 0,008 euro ordaintzen dizuten plataforma batera. Gaur egungo multidiziplinartasunaren atzean prekaritatea dago. *Do it yourself*-a ("Zuk zeuk egin") oso prekariora izan daiteke, zeuk egin behar duzu lan guztia, ezin duzu kontratatu diseinatzaile bat edo bideogile bat...

Nola funtzionatzen du Spotify-k?

J. Jorajuria: Spotify ez da Instagram bezala, ez da kontu bat egin eta abestiak igotzea besterik gabe. Kontratu bat egin behar da banatzaile batekin, eta bakoitzak bere eskaintza dauka. Guk ez daukagu horren gaineko kontrolik, eta kalkuluak eginda zenbat ordaintzen duen Spotify-k, zenbat iristen zaigun guri eta zenbat iritsi beharko litzaigukeen, ez da errealia. Ez da gardena, ez dakizu non geratu den dirua, zeinek zer kobratu duen, zenbat ordaindu dizun plataformak...

Merina Gris maskarekin ateratzen da oholtzara. Zergatik?

Julen: Askotan garrantzia handiagoa

ematen zaio artistari, produktuari baino. Niri gustatzen zait artista ezagutzea, baina beste talde batzuetan jo izan dugu eta ez genuen aurreiritzirik sortzeko aukerarik eman nahi. Asmo artistikoa zuen jolas bezala hasi ginen aurpegiak ezkutatzeko, baina paradoxikoki, identitatea indartu digu gure identitatea ezkututzeak.

Zein proiektu dituzue hemendik aurrera?

Julen: Bigarren lan batean ari gara pentsatzen eta kontzertu dezente ditugu datozen hilabeteetan. Gauzak konstatzen jarraitzeko gogoia dugu. Abesti batean esaten dugu *os lo juro que es la hostia lo que tengo que contar* (zain dagizuet sekulakoa dela kontatzeko daukadana), eta hori da sentitzen duguna. Ez dugu esan nahi besteak baino hobe denik, baina uste dugu egiten dugun honek merezi duela eta gurekin konektatuko duen ahalik eta jende gehienarengana iritsi nahi dugu.

Paskal: Konstantzia mantendu nahi dugu. Uste dut puntu honetara iritsi garela eta taldeak aurrera egiten duela oso konstanteak garelako.

J. Jorajuria: J Martinarentzat urte honetako buruhausterik handiena banda izan da. Pixkanaka konposatzen jarraitzeko asmoa dugu, eta udan-edo horiek atera eta eskaini.

A. Barcena: Udan printzipioz hasierako formatuari eutsiko diogu, hirurok emango ditugu kontzertuak. ●



LIBURUA

Euskaldunen azpiratze prozesu historikoa



ARGIA

**BARBAROAK ETA
ZIBILIZATUAK**
IBAI ATUTXA ORDEÑANA
TXALAPARTA, 2022

AMAIA ALVAREZ URIA

Ibai Atutxak Txalaparta argitaletxea-
rekin eta Iratzar Fundazioarekin ar-
gitaratu berri du *Barbaroak eta zi-
bilizatuak. Euskal gatazken eskuliburu
materialista*. Gogo handiz irakurri dut,
pentsamendua euskaraz sortzea eta ba-
liabide teoriko eta diskurtsiboak berta-
tik eta bertarako eskaintzea izugarri ga-
rrantzitsua dela uste dudalako. Begirada
kritiko, engaiatu eta jantzia.

Liburu labur baina trinko honetan to-
patuko dugun tesia hurrengoa da: "Eus-
kalduna izendatzeko 'basa' iruditeria
oso bat etengabe berritzut, eraldatu eta
zabaldu egin da modernitatean zehar
euskaldun desobedientea deshuma-
nizatzeke eta subalternizatzeke". Eta,
horrela, haren aurkako biolentzia legi-
timatu da. Euskara izan da aldi berean
zapalkuntza eta erresistentzia eremua,

eta egileak zibilizatu/basa dikotomia
gaingitu eta nazio inzibilizatu baterako
deia egiten du.

Historian zehar euskaldunak "barba-
ro", "heretiko" eta "antidemokratiko"
gisa irudikatu direla irakurriko dugu:
denboran zehar euskaldun 'basa' sorgin,
langile edo terrorista izango da eta ho-
rren ondorioz torturagarria. Bitartean
euskaldun zibilizatuak eraikiko dira
balantzaren beste aldean, baina horiek
"bortxa eta mozkin kapitalista-kolonia-
laren erdigunean" kokatuko ditu moder-
nitateak.

Hizkuntzarekin jolasteko gogoia piztu
dit terminologiak, hausnarketa linguisti-
koa egiteko amua. "Basa" eta "barbaro"
darabiltza egileak, ez du basati aukeratu.
Barbaro hitza *bar-bar* onomatopeiatik
dator eta mundu klasikotan "atz-herri-

tar" edo "er-besteko" jendea izendatze-
ko termino gutxiesgarria zen. "Basa" eta
"basati" basora garamatzate, ordea, he-
rritik kanpo dagoen eremu ezezagunera,
literaturan eta zineman hain emankorra
dena. Biek mundu ikuskerak dakartzate,
lanaren tesia indartzen duten sinboloak.

Hala ere, lan honek eraldaketarako
eskuliburu edo erreminta-kutxa izan
nahi badu, agian hizkera dibulгатiboa-
goa izan beharko luke jende gehiago-
rengana heltzeko. Tere Maldonadoren
Hablemos claro lanari jarraiki, horrela-
ko esaldiak saihestu beharko lirakeke:
"Euskaldun basak ez dio erabat eran-
tzuten orain arte teorizatutako erre-
gimen biopolitiko eta nekropolitiko
neoliberal zisheteropatriarkal eta ko-
lonialei", eta hiztegi espezifikoia irisga-
rriago egin. ●



MUSIKA

Gurea da lore sorta!



CHAOS IN BASQUE COUNTRY

XALBA RAMIREZ

Belaunaldi aldaketa baten ikurra da Tatxers, pandemia osteko eszenaren berritzea ekarri zuten horien taldekoa. Denbora gutxian lortu zuen publikoaren maitasuna, eta, harrigarria bada ere, polemikarik gabe, kontsentsu handi xamarrez. *Oi!* musikak eta popak bat egiten duen puntu *estraño* horretan ekilibrista izatea da haien bertutea. Jarre- eta melodiak, nolabait laburtzearren.

Hau da haien lehen lan luzea, eta jauzia eman nahi izana nabaritzen zaie. Norabidez aldatzen dute kanteak, akorde segida berriak probatuz eta erritmoak aberasten. Berako Atala estudioan grabatuta, tranpa eta kartoirik gabeko estudio baka- rrenetakoa dugu Euskal Herrian. Nabari da. Ez dago alferrikako betelanik, gordina da eta soinu zuzen horrek laguntzen dio kantu zuzenei. Zuzenekoetan zuzendu beharko ez direnak, bidenabar.

Kanta batzuetan jauzia nabariagoa da, alegia, garapena bilatu eta saiatu direla lehendik egindakoa ez errepikatzen. Baina beste talde batzuen kasuan ez bezala, ez die esentziari batere eragiten. Eta, honakoan, kantutzarrez bete dute diskoa. Bakar bat ere ez da soberan, eta denak dute beren zera berezia. Tatxersek bere lekua topatu du, eta zorionekoak gu.

"Etengabeko konparazioan" sentitu dute haien burua Tatxerstarrek, nostalgikoak ez direla aitortu behar izan dute sarri. Britainiako rocka dela, Itoiz eta Balerdi Balerdi direla, nostalgiaren uhinetan kokatzen dituzte. Inori ez zaio arrazoirik falta. Taldeak gogorarazten dituelako lehendik egin diren molde horiek, distortsiorik gabeko gitarrak kasu -disko honetan are garbiagoak direnak-.



TATXERS

TATXERS

AUTOEKOIZPENA, 2023

Baina bada erroko gaizkiulertu bat. Lehendik egin diren estiloen tradizioan kokatzeak ez zaituela ezeren nostalgiko egiten. Nostalgia pasiboa da, erabat. Mugitzen den inor ez da nostalgikoa. Uhin retroak izan ditzake, denok edaten dugulako nonbaitetik. Sorkuntza ez delako asmatzea, berrasmatzea baizik.

Mao Zedong lagunaren paperezko tigreak oinarri hartuta lortzen dute garaia deskribatzea; denaren eta ez denaren arteko ezlekuan hazitako belau- naldiaren doinuetan, porrota da bide bakarrak indar handiagoa duela diru- dienean: "Hau ez al da izango / mundua onera aldatzeko / halako ilusio ero bat/. Paperezko tigreak ote dira / aurrean ditugunak/ haizeari aurre egiteko gai ez direnak". Porrotari esperantza apur bat, azkenean. Eta badugu garaipenera- ko lelo berria: "Gurea da lore sorta!". ●



ro de Ópera de Bilbao

r: Bo Dujin



'Tutto Verdi'-ren azken txanpa

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR E. MORENO ESQUIBEL / ABAO

Sari banaketa guztien emaitza ez da beti bertaratuen emozioa, edota benetan merezitako sariak direlako sentazioa. Oraingo honetan, ordea, bai. Verdiren opera guztien entzule gisa izandako esperientziatik zetorren bertaratuen emozioa, *Tutto Verdi* proiektu apartaren edukia izan direnak. Agian norbaiti erraza iruditzen zaio *Tutto Verdi* bezalako proiektu bati ekitea, non egile bikain horren obra osoa urteetan zehar eskaintzen den. Baina ez du ezer errazik. Izan ere, opera bat muntatzea oso zaila da. Ikuskizun totala, garestia eta konplexua da, eta horrelako ekoizpen batean modu batera edo bestera esku hartzen duten guztien talentu ikaragarria eskatzen du.

Bada, pentsa dezagun opera bat muntatzea zaila bada, Verdiren produkzio osoa hamasei urtetan zehar programatzea, lehen mailako artistekin, ezinezkoa

izan litekeela jende eta entitate askoren laguntzarik gabe. Egia esan, horixe izan zen Tutto Verdi International Awards sarien banaketa: aintzatespen bat proiektu handi hau arrakastaz egin izana lagundu zutenei.

Leo Nuccik, Pier Luigi Pizzik, Daniela Barcellonaak, Juan Jesús Rodríguez, Riccardo Frizzak, Emilio Sagik, Bilboko Opera Abesbatzak eta BBVA Fundazioak jaso zituzten OLBEK sortutako sari hauek. Ekitaldia Arriaga Antzokian izan zen, eta Iñaki Gabilondok eta Udane Goikoetxeak aurkeztu zuten gala-errezitaldi polit hau.

Emandako sari guztiek zentzu handia izan zuten, baina Verdiren interprete handiei emandako sarietan jarri nahi dut arreta, konpositore honen aria batzuen interpretazioa oparitu baitziguten.

Gizonezko ahots onenaren saria Juan Jesús Rodríguez baritonoak jaso zuen.

EKITALDIA: OLBEK

antolatutako Tutto Verdi International Awards sariak.

NON/NOIZ: Bilboko Arriaga antzokian, apirilaren 17an.

Ernani operako aria bat eskaini zuen, eta Huelvako (Andaluzia) abeslariaren interpretazio intentsitateaz disfrutatzeke aukera izan genuen.

Emakumezko ahots onenaren saria Daniela Barcellona mezzo zoragarriak jaso zuen, urteotan hain une bikainak pasarazi dizkigunak. Abeslari italiarrak *Il Trovatore* operako pieza bat interpretatu zuen, Alessandro Vitiello pianoan lagunduta. Beti bezala, primeran.

Gaueko azken saria Leo Nucci baritono handiarentzat izan zen, egindako ibilbide profesionalagatik. Artista karismatiko hau galako unerik hunkigarrienetako baten protagonista izan zen, *Rigoletto* operaren *Cortigiani* interpretatuz.

Benetan gala bikaina izan zen, eta bertan parte hartu zuten guztien kalitatea eta gertutasuna nabarmenak izan ziren. Zorionak, guztioi. ●



Hitz gezidunak

Gaia: * Herri Urrats 2023

HARIAZ LOTU BOTIKA KANTITATE		AZKEN PROBA PREDIKU		ANFIBIO MOTA		ANESTESIKO MOTA ZAKURRA		TIK-... ERLOJUAREN HOTSA ZEPTO		ONGI IEL JARRITA		LARREAK, ZELAIK BIZKAIKO UDALERRIA	
→		↓		GOTZAINZA ITALIAKO IBAIA	→	↓		↓		↓		↓	
* HERRIA BIRAOGILE, BIRAOTI	→			↓				KEBIDETAKO ZIKINKERIA LODOAREN IKURRA	→				
→								↓		HAURREN HIZTEGIAN, LO EGIN GADOLINIOA	→		
ERABAT, TXIT	MILILITRO SAMURTASU- NEZ	→							→		DAGO DISTIRA	→	
→	↓		GAZITASUNA GALDU						→		↓		
OKELAREN ZAINA (ALDE- RANTZIZ) 2000 ERRO- MATARRA	→		↓						→				TXOKOLATEA EGITEKO ERABILTZEN DEN HAZI
→		ENERGIA EGOKI, ERARA	→						→	TAMAINA HANDIKO HEGAZTIK ZUT	→		↓
ZUHAUR (AL- DERANTZIZ) * LELOA	→	↓		OSMIOA ZALETASUN ATZIZKIA	→	ZUZEN EZ DAGOENA ORE JANGARRI	→	10 ERROMA- TARRA ZEREZKO ATZIZKIA	→	ABIATZEN DA BAIEZKO	→		
→				↓		↓		↓		↓		KILOA OMEN	→
ETXEKO ANIMALIA LIZUNKI, LIZUNKERIAZ	→				LUR NEURRIA POTASIOA	→						↓	
→				↓						ANTZETSU, GAITU	→		

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	8	5		2			1	4
3		7	4				6	8
	1	9	7	8				
7								5
2			3	1	7		4	9
	9	3				6	7	
	7		8	3	2			6
8				7				1
			9					7

5x5

ZECHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Filme baten argumentu.
2. Narrazio labur.
3. Bizi garen planeta.
4. Hainbat eritasunen eragile.
5. Zikina.

EBAZPENAK

1. BILBE
2. IPUIN
3. LURRA
4. BIRUS
5. ENASA

5	2	9	5	1
8	3	3	4	6
1	6	2	5	7
9	5	3	8	1
2	7	1	4	6
3	4	8	6	2
6	4	8	1	7
5	6	9	2	3
4	1	6	7	8
3	8	6	5	1
6	8	5	9	2
7	1	4	3	7

O	I	A	I	O	R	I	K	N	Z	I	L
V	A	E	J	K	H	U	J	V	K		
K	I	U	B	Z	K	S	A	T	R	R	U
V	O	D	X	O	O		Z	E	U		
K	V	A					E		M	M	
I	K	I	U				G	I	V		
K	V	D	U					O	S	O	
V	D	D	G				L	M			
O	L	O	L	I	R	V	L	A	O	V	B
R	E	D	A	K	E	R	E	N	E	S	
O	G	N	I	V	Z	O	G	I	S	O	D
S	O	T	E	I			F		I		

Aida Casanova

FAMILIA-ABOKATUA



HAURREN ESKUBIDEAK ALDARRI

"Abokatutzarekin lehen kontaktua ttikia nintzenean izan nuen, zoritxarrez. Gurasoak banatu zirenean ezagutu nituen *justizia, abokatu* edo *epailea* hitzak, eta ez dakit, baina ttikia naizenetik argi izan dut abokatu izan nahi nuela. Gerora, unibertsitate garaian, epaitegie-tara joaten nintzen, pozik, abokatuen lana gertutik jarraitzea. Erronka ika-ragarria da familien eskubideen alde borrokatzea, beti pentsatu izan dut nik bizitu nuena hobeki kudeatzeko mo-dua zegoela, alegia, gurasoen banaketa bertze modu batean kudeatu daitekee-la, eta, batez ere, haurren eskubideak erdigunean egotea dela garrantzitsue-na, hori baita amek eta aitek nahi dute-na: haurrekiko errespetu gehiagorekin, eta, posible denean, seme-alabentzako irtenbiderik hoberenak bilatzea behar luke izan gure jomuga".

"Guraso bakarreko familian jaiotzea diskriminatzailea da epaileen seme-alabak ez diren haurrentzat"

Azken hamarkadan familia zuzenbidean lan egin du Aida Casanova abokatuak eta guraso bakarreko familien eskubideen aldarrikapenean erreferente bilakatu da. Espainiako Familia Abokatuen Elkarteko (AEAFA) kidea eta Madres Solteras por Elección (Ama Bakarra Hala Erabakita) Elkarteko kolaboratzailea ere bada Casanova.

 SAIOA BALEZTENA  AIDA CASANOVA

Guraso bakarreko familia batean jaiotzea haurtxoarentzat "diskriminatzailea" omen da Espainian. Zergatik?

Guraso bakarreko familia batean jaiotzea haurrentzako diskriminatzailea da epaileen seme-alabak ez diren haurtxoentzat, bai.

Zer erran nahi duzu, epaileek eskubide gehiago dituztela?

Bai, hori horrela da 2021eko otsailaren 4an Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak hartutako erabakiaren ondorioz. Harrigarria bezain bidegabea. Nik, horregatik, auzitegieta-ko ondorioetan beti gehitzen dut albiste horren inguruko argazki bat, oroitarazteko haurren zaintzarako baimenen pilaketa eskatzen duena epailea balitz, onartuko litzaiokeela. Zentzu horretan, garrantzitsua da kontuan hartzea hainbat erakunde publikotan ere gertatu izan dela, baimenak pilatzeko aukera eman zaiela bertako funtzionarioei, adi-

bidez. Baina kasu honetan larriena da ez garela ari erakunde konkretu baten inguruan, gurasobakarrak diren epaile guztiek baitute baimenak pilatzeko eskubidea.

Zergatik da diskriminatzailea?

Familia batean edo bertzean jaiotz gero, haurrek eskubide gehiago edo guttiago dituztelako. Guraso bakarreko familia batean jaiotz gero, 16 hilabeteko zaintza bermatzen dute; bi gurasoak dituztenetan, aldiz, 32.

Hala ere, hainbat Auzitegi Nagusik behin baino gehiagotan esku hartu dute guraso bakarreko familien baimenaren pilaketaren alde. Nola uler daiteke?

Baimenen pilaketaren alde agertu zen lehen auzitegi nagusia EAEkoa izan zen, 2020an. Gerora, besteak beste Galizia, Gaztela eta Leon, Balearrak, Extremadura, Aragoi, Madril eta Katalunia ere baimen pilaketaren alde agertu dira.



"Ez da posible ama batek hamasei asteko baimena edukitzea bakarrik, edoskitzean eta erdiondoan horrek eragiten dituen ondorioekin".

Baimenen pilaketa ez eskaintzea Nazio Batuen Erakundeak onartu zuen Haurren Eskubideen Konbentzioaren kontra doala uste du batek baino gehiagok. Zer deritzozu?

Ez hori bakarrik, baita mundu mailako eta Europako legegintza konstituzionalaren kontra ere. Hala nola, adineztatikikoen Babes Juridikoaren Legearen kontra, eta, funtsean, haurtxo guztiek, jaiotzen diren familian jaiota ere, eskubide berdintasuna izatearen kontra. Baita emakumeen aurkako diskriminazioen kontrako Nazioarteko Konbenioaren aurka ere, kontuan hartuta, Espainian dauden familia gurasobakarren %85a emakumeek osatzen dutela.

Nola borrokatu daiteke erakundeek sustatzen dituzten desberdintasun horien kontra?

Hasteko, ezinbertzekoa da familien lege bat, guraso bakarreko familiek gainontzeko familiek dituzten eskubide berak izatea bermatzeko. Baina lege hori iristen den bitartean, funtsezkoa da erakunde publikoek eta, batez ere, justizia auzitegiek desberdintasun hori konpentsatzea, gurasobakarrek 32 asteko baimena izatea onartuta. Izan ere, haurtzaroaren eskubideak jokoan daude eta amorrua ematen du, oraindik ere, haur guztiek zaintza eta dedikazio berdina merezi dutela zalantzan jartzen dutela ikustea.

EAEko Auzitegi Nagusia 2020an guraso bakarreko familia baten alde agertu zenean, Ministerio Fiskalak Auzitegi Gorenean helegitea aurkeztu zuen. Bi urte luzeko tramitearen ondotik, martxoaren 8an ezagutu zen Gorenaren sententzia: bertzehin, baimenak pilatzearen kontra agertu da.

Hasteko, erranen nuke, martxoaren 8an publikatu zutela sententzia emakumeei mezu argi bat bidaltzeko. Espainiako epailetza bereziki matxista dela argi geratzen da. Sententzia horrek ez du genero ikuspeirik ezta haurtzaroaren interes gorenaren ikuspeirik ere, noski. Eta ez diot nik bakarrik, Gorenaren sententzian bertan bozka partikular guztiek hala agertu zuten. Asko esaten du.

Kataluniako Auzitegi Nagusian sententzia bat irabazi duzu oraintsu, guraso bakarreko familia baten baimenak pilatzearen alde. Antza, Gorenaren sententziak ez du saihestu tokian tokiko auzitegien irizpidea.

Pozgarria izan da, Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusia berriro ere agertu delako familia gurasobakar baten alde. Baina, batez ere, familia mota hauen aldeko lehen sententzia delako, Gorenaren sententzia gogorraren ondotik. Gizarte Segurantzaren Institutio Nazionalak helegitea aurkeztuko du segur aski, eta Gorenara joan beharko dugu,

berriz. Hor ezezkoarekin topo egingen dugu eta Konstituzionalera joan beharko dugu babes eskeko errekursoarekin.

Bitartean, Madrilen, onartzean dago Familien Legea. Zertan eragingo du guraso bakarreko familien eskubideetan?

Familia Legeak ez du baimenak pilatzeko aukerarik aurreikusten, baina, Kongresuan zein Senatuan onartzea falta denez, une erabakigarria bizi dugu orain: funtsezkoa da gizartearen presioaren bidez alderdi politikoek legearen zuzenketak aurkeztea.

Zeintzuk dira erronka nagusiak orain, legea hizpide hartuta?

Lege hau bereziki garrantzitsua da, lehen aldiz familiak legislazioaren erdigunean kokatuko direlako. Hori bai, gabezia garrantzitsuak ere baditu. Batetik, jaiotzetiko baimenak, guttienez, sei hilabetekoak izan beharko lirateke guraso bakoitzarentzat. Ez da posible ama batek hamasei asteko baimena edukitzea bakarrik, edoskitzean eta erdiondoan horrek eragiten dituen ondorioekin. Bigarren gabezia da guraso bakarreko familiak eta adopzioek ezin dituztela baimenak bikoiztu. Eta, azkenik, telelana edo laneko presentzialtasunaren malgutasuna ez duela erregulatzen. Beraz, legea eskasa da familien beharrak asetzeko. ●

Hipopotamoa kristal artean

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Gauza entretenigarriagoren bat egiteko asmoa neukan, ez pentsa. Kirtenkerien antologia txiki bat eskaini nahi nizuen, hauteskunde-kanpaina hasi dela aprobeztatzuz asko ugaritzen baitira era guztietako hanka-sartzeak alderdi politikoen programetan, adierazpenetan, posta bidezko propagandan, karteletan, txioetan, esku-orrietan eta, sakatuz gero, baita partiduen logoa serigrafia-tuta daukaten arropa intimoetan ere: mitinean horrelako zerbait engoitik oparitu ez badizute, kontu hauetan dauzkagun pudore katolikoen arrastoengatik izango da, nik uste.

Periferiatik badatoz haize berriak hala ere, Txarlazopeko herri batean EAJko alkategaia iaz iragarri eta kargua lortuz gero akaso beteko duen promesari erreparatuz gero: “Gogor lan egingo dudala adierazi nahi dut, eta Urduñaren alde larria joko dudala”. Programa ausart eta berritzailea inondik ere, harrizko herri hau askatuko duena gerri-mugimendu instituzionalizatua-ren bidez, erdaratik euskaraz idaztea hainbeste erraztu duten itzultzaile automatikoak satisfyer bihurtuta: *traduttore*, uhm, *traditore*.

Azkenean aktualitateak agintzen duenaz idatzi behar ordea: uholdeen erruz aurtengo Herri Urrats ia bertan behera geratu da, bertsio minimalean ospatu da jaiaren 40. edizioa eta mila-ka euroko galerak izan ditu Seaskak. Beraz, Ipar Euskal Herriko ikastolek laguntza ekonomikoa eskatu diete herri-tarrei, norbaitek babestu beharko baitu Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan euskaraz ikasteko eskubidea; eta inozentea izan behar du pertsonak, edo inozoa, Hizkuntza Gutxituen Europako Gutuna berretsi ez duen Frantziako Estatu-tik zerbaiten esperoan egoteko.

Baina ia bukatuta neukanean ipar-he-



Putzuen gainetik, jendeak pixka bat ospatu zuen 40. Herri Urrats.

EITB

go elkartasun-premia berri honi buruzko artikulu net poetiko bat, Oihenarten aipu batekin hasten zena –harrapazank–, hara non patuaren karanbola bati esker nire lehenbiziko asmora itzuli ahal izan dudun, Herri Urrats guztiz abandonatu gabe. Eta dena Podemos-Ahal Duguren EAEko legebiltzarreko koordinatzaileari eta alderdi horretako aholkulari bati esker: “Zer igoko da gehiago: Urdazuri ibaiaren ur-emariaren maila, edo ikastolek kobratzen dituzten lege kanpoko kuoten prezioa?”, txiokatu zuen lehenbizikoak, Senperen kinka larrian zeuden momentuan. Bigarrenak berriz, beranduxeago: “EiTBk Herri Urratsekin ireki du Teleberri, Ipar Euskal Herriko Senperen, Frantziako udalerrian, ikastola pribatu berria eraikitzeke funtsak lortzeko balio duen jai herrikoia. Nahiz eta festa izan, segregazioa sustatzen ari dira”.

Ez da Urduñako alkatearena bezain esplizitua, ados, baina striptease politiko gisa ez dago batere gaizki alderdi morearen paraje hauetako ordezkariak azkenaldian egiten ari direna. Hasieran pentsatu nuen boto-aurreikuspen txarren aurrean PSOeren ohiko bezeroak limurtu nahian hartu zutela ildo *destroyer* hori. Baina asteburu honetan EAEko tipulak eta Xilabako porruak nahasten ikusita, beste alde baterantz joan zait iritzia: pentsatzen hasia nago ibilgailu politiko autonomo bihurtu direla. Alegia, ez dagoela inor bolantean.

Hauteskunde show honetan estrategia identitario horrek funtzionatuko duen? Auskalo. Baina eskola-segregazioa bezalako kristalezko debate batean horrelako hipopotamo-hankekin sartzen denak konfiantza handirik ez du ematen. ●

Bertsoa eta umorea ardatz,
Señora Sariketaren jarraipena
egingo duen bideo-podcasta.



Hiru saio izango dira,
maiatzaren 11n hasita.

Ostegunetan ARGIAren webgunean eta
ohiko plataformetan ikusgai.

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)





ZIBURUKO EUSKAL
LIBURU ETA DISKO
AZOKA

ZIBURUKO 4. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

EKAINAREN 3AN
PILOTA PLAZAN



ANTOLATZAILAK



PARTAIDEAK



ZIBURU
CIBOURE

